

Año LVIII. urtea

141 - 2026

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Erdialdeko euskararen
presentzia Irungo gazteen
euskaran**

Alexander Artzelus, Diego de Alba

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVIII. urtea - N.º 141. zk. - 2026

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Poetika feministen lehen harria euskal literaturan: Amaia Lasaren hastapeneko olerkigintza Ane Arrastoa Villagran	9
Euskarazko hizkuntza-jolasak Oroitz Jauregi, Irantzu Epelde	41
Erdialdeko euskararen presentzia Irungo gazteen euskaran Alexander Artzelus, Diego de Alba	71
Maskulinitate eta feminitate ereduak Ramon Saizarbitoriaren ipuingintzan Nagore Fernandez-Zabala	121
Egitura arazleak mendebaldeko euskaraz: <i>arazo eta eragin</i> Jon Etxebarria Zarandona	149
Initial peaks and final contours in wh-questions from Irun Nerea Delgado	181
Aditz trinkoen osakeraren gaineko proposamen berri bat Aitor Lizardi Ituarte	211
Gazteen hizkuntza hautuak eta euskararen erabilera ahozko komunikazioan: Durangoko kale-inguruneko azterketa Ane Gabikagogeaskoa Pagonabarraga, Asier Romero Andonegi, Mari Mar Boillos Pereira	247
Los prejuicios del hablante monolingüe de español ante el fenómeno de alternancia de código en el discurso oral de los hablantes bilingües de euskera-español Dara Acosta Vizcaíno, María Nayra Rodríguez Rodríguez	273
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	307

Erdialdeko euskararen presentzia Irungo gazteen euskaran

La presencia del dialecto central en el euskera hablado por los jóvenes de Irún

The presence of the central dialect in the Basque spoken by young people in Irun

Alexander Artzelus

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

alexander.arcelus@unavarra.es

<https://orcid.org/0000-0001-7763-4894>

Diego de Alba

Ikertzaile beregaina

dealba.p.diego@gmail.com

<https://orcid.org/0009-0009-2343-7444>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv141.3>

CRedit taxonomia

Alexander Artzelus: Kontzeptualizazioa; Analisi formala; Ikerketa; Metodologia; Proiektuaren kudeaketa; Baliabideak; Softwarea; Gainbegiratzea; Onespina; Ikusgarritasuna; Idazketa – jatorrizko eskuizkribua; Idazketa – berrikuspina eta edizioa. **Diego de Alba:** Kontzeptualizazioa; Datuen kontserbazioa; Ikerketa; Metodologia; Proiektuaren kudeaketa; Baliabideak; Idazketa – jatorrizko eskuizkribua.

Jasotze data: 2025/10/30. Behin-behineko onartze data: 2026/03/18. Behin betiko onartze data: 2026/05/19.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Lan honek Irungo gazteen euskaran erdialdeko euskarak duen eragina neurtu nahi du. Euskal lan bariazionistetan ia beti aipatu da euskara batuaren eragina, baina gutxitan beste hizkuntza-barietate batzuenak. Horretarako, Irungo euskaran eta euskara batuan era batera eta erdialdeko euskaran bestera erabiltzen diren zazpi ezaugarri aztertu ditugu, generoaren, transmisioaren eta ikastetxearen arabera. Datuak elkarrizketa erdi-gidatuaren bidez lortu ditugu, eta erregresio logistikoko binomial mistoaren bidez aztertu. Erdialdeko euskarako aldaerak Irungo gazteen artean lekua irabazten ari dira, eta maiz aldaketaren buruan daude euskara eskolan ikasiak, Txingudi ikastolan ikasiak eta emakumeak.

Gako hitzak: bariazionismoa; dialektologia; gazte-hizkera; erdialdeko euskara; hizkuntza-aldaketa.

RESUMEN

Este trabajo mide la influencia del euskera central en el de los jóvenes de Irún. Los estudios variacionistas del euskera mencionan la influencia del euskera batua, pero rara vez la de otras variedades. Para ello, hemos analizado siete rasgos comunes en el euskera de Irún y en euskera batua, y distintos al euskera central, según el género, la transmisión y el centro escolar. Los datos se han obtenido mediante entrevistas semidirigidas y se han analizado mediante regresión logística binomial mixta. Las variantes del euskera central están ganando terreno entre los jóvenes de Irún, y los líderes son los que han aprendido euskera en la escuela, sobre todo, en la ikastola Txingudi y las mujeres.

Palabras clave: variacionismo; dialectología; habla juvenil; dialecto central; cambio lingüístico.

ABSTRACT

This study examines the influence of Central Basque on the speech of young people in Irún. Variationist studies of Basque have frequently addressed the influence of Standard Basque, but rarely that of other varieties. To this end, we analysed seven features that are shared by the Basque of Irún and Standard Basque, but differ in Central Basque, according to gender, transmission, and school. The data were collected through semi-structured interviews and analysed using mixed-effects binomial logistic regression. Central Basque variants are gaining ground, and the leaders are those who acquired Basque through schooling –particularly at Txingudi Ikastola– as well as by women.

Keywords: variationism; dialectology; youth speech; central dialect; language variation and change.

1 SARRERA. 2 MARKO TEORIKOA. 2.1 Soziolinguistika bariazionistaz. 2.2 Erdialdeko euskararen eragina. 2.3 Irungo euskara. 3 METODOLOGIA. 3.1 Datu-bilketa eta azterketa. 3.2 Aldagai askeak. 3.3 Mendeko aldagaien hautaketa. 4 DATUEN AZTERKETA. 4.1 *-e-* vs *-a-* *izan* aditzean. 4.2 *Izan*-en absolutiboko 3 pertsona singularrean *-e-* edo *-a-*. 4.3 *-e-* edo *-u-* erroa **edun* aditzetan. 4.4 *Deus* vs *ezer*. 4.5 *Aski* vs *nahiko*. 4.6 *Eduki* vs **edun*. 5 ONDORIOAK. 6 ERREFERENTZIAK.

1 SARRERA

Lan honek Irungo gazteen euskara aztertzea du helburu, hizkuntza-ezaugarri jakin batzuetan oinarrituta. Gai honi heltzeko hainbat motibazio-iturri izan ditugu.

Alde batetik Euskal Herriko gazteen euskararen panorama aberastu nahi izan dugu. Nahiz eta dialektologian adintsuen mintzoari erreparatu zaion batez ere, geroz eta ugarriagoak dira gazteen mintzoaz interesatzen diren lanak. Horiek oso beharrezko zaizkigu euskararen oraina eta etorkizuna hobeki ulertu ahal izateko. Lan horretan ekarpen izan nahiko lukete orri hauek.

Bestalde, euskal dialektologiaren eta bariazionismoaren ikuspuntutik egin diren lan gehienetan, herri txikietako hizkerak aztertu izan dira; beraz, maiz, hiriak baztertu egin dira, horietako euskararen nortasun edota kalitate faltak eraginda edo (besteak beste, Artzelus, 2021; Eguskiza, 2019; Ensunza, 2015; Etchebest, 2017; Haddican, 2005; Lujanbio, 2016). Salbuespen bakarrenetakoak genituzke Rodríguez-Ordóñez (2016) eta Franco-Landa (2025). Ezinbestekoa iruditzen zaigu, ordea, hirietako euskara ere aintzat hartzea, hizkuntza-aldaketaren panorama osoa izan nahi badugu; izan ere, hizkuntza-berrikuntza asko hierarkia-eran hirietatik herrietara zabaltzen dira (Hernández-Campoy, 1999).

Era berean, euskararen barnean gertatzen ari diren aldaketetan, euskara batutik aparte bestelako eragileak ere badaudela agertu nahi da. Aurrekoetxeak 2006an urratu zuen bidetik aurrera, lan guztietan edo ia guztietan azpimarratu izan da euskara batuaren eragina. Hizkuntzaren barietate estandarra ez da izan ohi, ordea,

aldaketa-iturri bakarra; prestigioa edota indarra duten bestelako barietate batzuek ere izan dezakete zerikusirik (Auer & Hinskens, 1996; Vandekerckhove, 2009, 73. or.). Garcia-Palominok (2021eko uztailaren 2a) ere euskara batutik herri-hizkera jakin baterako eragin bertikaletik aparte, gaur egun inguruko herrietako mintzoez eragin horizontala ere egotea balitekeela defendatzen du. Garazin, adibidez, izaera supralokaleko eta nafar-lapurteraren ondorengo den Iparraldeko batuak estatuen arteko mugatik iparraldera eragina duela frogatu zuen Artzelusek (2021) arlo fonikoari dagokionez: Garaziko bilakabide fonologikoak saihesten zituzten gaztetxeko giroan ibiltzen diren gazteek baina nafar-lapurteraz tradizioa zuten ezaugarri morfologiko eta sintaktikoei eutsi egiten zieten, hein batean. Lan honen hipotesia da Bidaso Beherean euskara batuarena baino areago, erdialdeko euskararen eragina dagoela: euskara batuak ez dirudi gazte askori informaltasuna eta adierazkortasuna ematen dienik, eta, hori lortzeko, inguru horretako gazteek erdialdeko euskarara jotzen dute. Hori dela eta, Irungo euskararen eta euskara batuan modu batera eta erdialdeko euskararen beste modu batera erabiltzen diren hizkuntza-aldagaiak aztertuko ditugu, eragin hori frogatu ahal izateko.

Gainera, kokapen biziki interesgarria du Irunek, eta horrexegatik ere merezi du hango euskara ikertzea: mendebaldera erdialdeko euskara du; hegoaldera, euskara nafarra; eta ekialdera, nafar-lapurtera. Bidegurutze hori dela eta, hainbat fokotako eragina du Irungo euskarak. Bonapartek (1863) nafarreraren barnean sailkatu zuen; Zuazok (2003), berriz, erdialdeko euskararen eta euskara nafarreraren bitarteko hizkeratzat hartu zuen. Interesgarria da ikertzea gaur egun gazteen artean hizkeren arteko konbertsio eta harreman hori zertan den.

Hipotesi nagusia da erdialdeko euskara Irungo euskararen eragina izaten ari dela, zenbaitetan, euskara batuaren aurrean, nahiz eta Irungo euskara «tradizionala» eta euskara batua bat etorri hizkuntza-ezaugarri batzuetan. Aldaketan eragina izan lezaketen aldagai sozialen arabera, beste azpihipotesi hauek egin ditugu¹:

1. Generoa: emakumezkoak hizkuntza-aldaketaren buruan egongo dira; hots, erdialdeko euskaratik heldu diren aldaketak lehenetsiko dituzte.
2. Transmisioa: euskara etxean ikasi dutenek Irungo euskara «tradizionaleko» eta euskara batuko aldaeren alde egingo dute; ez, ordea, euskara eskolan ikasi dutenek.
3. Ikastetxea: La Sallen ikasi dutenak berritzaileago izango dira; hots, erdialdeko aldaerak gehiago erabiliko dituzte, Txingudin ikasi dutenek baino. Donibane Lohizuneko Sainte Marien ikasi dutenek joera bat nahiz bestea izateko arrazoiak dituzte, 3.2. atalean zehaztuko dugun bezala.

1 3.2. atalean azalduko ditugu zehatz eta mehatz aldagai horiek, baita zergatik espero dugun talde batzuek erdialdeko euskararen alde egitea eta beste batzuek ez.

Honako egitura du artikulua: oinarri teorikoei dagokienez, soziolinguistika bariazionistaz jardun dugu, aztergai ditugun aldagai askeetan arreta jarrita. Ondoren, erdialdeko euskararen eraginaz aritu gara eta Irungo euskararen kokaguneari eta erabilerari ere erreparatu diegu. Jarraian, metodologiari heldu diogu. Segidan, datuen azterketa dator eta, azkenik, ondorioak.

2 MARKO TEORIKOA

2.1 Soziolinguistika bariazionistaz

XXI. mendearen hastapenera arte, euskararen hizkuntza-aldakortasunari buruzko ikerketa gehienak dialektologia tradizionalaren esparruan kokatzen ziren (Artzelus, 2021; Ensunza, 2015; García-Palomino, 2022). Lan horiek hizkeren arteko bereizketak eta dialektoen arteko mugak zehaztea zuten xede nagusi, maiz ikuspegi diakroniko batetik abiatuta. Ikerketa horien bidez, euskal hizkera «tradizionalen» inguruko informazio zehatza eskuratu da, eta, era berean, Euskal Hizkuntzalaritzan ekarpen teoriko nahiz metodologiko garrantzitsuak egin dira.

García-Palominoren (2022) arabera, une honetan euskal bariazionismoaren lehen belaunaldian gaude. Haddican (2003, 2005, 2007) izan zen lehena bariazionismoa gurean aztertzen, Oiartzunen egin zuen ikerketaren bidez. Azken urteotan doktorego-tesi bariazionista batzuk aurkeztu dira; besteak beste, Artzelus (2021), Eguskiza (2019), Ensunza (2015), Etchebest (2017), Franco-Landa (2025), Lujanbio (2016) eta Rodríguez-Ordóñez (2016).

Lan honetan aztergai ditugun aldagai askeetan arreta jarritz gero, transmisioaz aritu diren lanei erreparatuko diegu lehenik. Nazioartean hasiz, frankoproventzeran hiztun berriek abiatutako hainbat hizkuntza-aldaketaren berri eman du Kasstan-ek (2015). Ildo beretik, hiztun berriek natiboek ez bezalako sare sozialen parte hartzen dutela argudiatzen du, eta, beraz, hizkuntza-aldaketaren izaeraz eta norabideaz berri interesgarriak eman diezazkiguketela; hain zuzen ere, hiztun natiboez bestelako hizkuntza aldaketak abia eta heda ditzaketelakoan dago (Kasstan, 2017). Era berean, Nance-k (2018) hiztun berriek Glasgowko gaelikoan berrikuntza sendoak abiatu dituztela frogatu du, besteak beste, ingelesaren eraginez. Louridok (2019), berriz, erakutsi du, ekoizpenari eta hautemateari dagokionez, galizierako hiztun berriak gaztelania nagusi duten elebidunekin bat doazela hizkuntza-ezaugarri batzuei dagokienez, baina galiziera nagusi dutenekin beste zenbaitetan.

Gurean, hiztun berrien hizkuntza-jokabideak aztertu dituzte hainbat autorek. Adibidez, Lanttok (2018), Bilbo Handian, L2 euskal hiztunek hizkera informalean *code switching*era jotzen dutela frogatu du; hots, gaztelania euskarazko diskurtsoan txertatzen dutela. Etxeko hizkuntzari erreparatu dio Rodríguez-Ordóñezek (2019) ere Gernikako doinu-azentua aztertzean, eta etxeko hizkuntza gaztelania izateak doinu-azentua galtzean eragina duela ondorioztatu du, baldin eta informatzaile horien sare sozialetako hizkuntza ere gaztelania bada. Urretak (2026), halaber, frogatu du

Ikaztegieta eta Baigorri euskara etxean ikasi duten hiztunek eskolan ikasi dutenek baino aldakortasun handiagoa dutela ahoskera arduragabetik zaindura igarotzeko orduan; izan ere, etxean ikasiek herriko bereko formekin harreman handiagoa izan dute, hizkera arduragabekotzat hartzen direnekin, eta beraz, estilo-aberastasun handiagoa dute eskura.

Gondrak eta bestek (2024, 113.-114. or.) dioten bezala, hizkuntza-erabilera aitortua etxeko hizkuntza, lagun arteko hizkuntza edota sare sozialak bezalako aldagai sozialekin uztartzen denean izan ohi da esanguratsu. Egile horiek ondorioztatu dutenez, Gernikako gazteek zenbat eta euskara gutxiago erabili, orduan eta gutxiago gauzatzen dute ergatiboa. Getxoko eta Boiseko hiztunen euskararen azterketa egin ostean, berriz, Franco-Landak (2025) ondorioztatu du beren burua hiztun tradizionaltzat hartzen duten hiztunek hiztun berritatzat hartzen dutenek baino gehiagotan gauzatzen dutela ergatiboa. Era berean, euskara L1 dutenek L2 goiztiarrek baino maizago erabiltzen dute. Dena den, hiztunek aitorturiko hizkuntza-identitatea (hiztun tradizionaltzat, berritatzat, edo, besterik gabe, euskalduntzat beren burua hartzea) euskara L1 edo L2 goiztiarra izatea baino esanguratsuagoa da. Hori dela eta, berezko natibo izaera baino areago, hiztunek hizkuntzarekiko izan duten harremana eta esperientzia edota ideologia hartu behar lirateke aintzat.

Ikastetxeak, berriz, Missouriko Saint Louis hirian sare sozial desberdinak egitura-tzean funtsezko osagaia direla defendatu du Duncan-ek (2021). Hain zuzen ere, helduen belaunaldiaren barruan, eskola publikoetakoek *though* hitzeko bokala katolikoetakoek baino beherago ahoskatzen zutela ondorioztatu du. Era berean, Prichardek eta Tammingak (2012) Philadelphian eskola nazionaletara joaten direnek *a* laburraren sistema berrantolatzen buru direla frogatu dute eskola erregionaletara joan direnekin konparatuta, eskola horien prestigioa eta horietara joaten diren ikasleen askotariko jatorria dela eta. Fenomeno berari dagokionez, Labovek eta bestek (2016) aldaketa horren buru eskola publikokoak zirela ondorioztatu dute, katolikoekin konparatuta. Desberdintasuna eskola horietan gauzatzen diren sare sozialetan datzala argudiatzen dute. Era berean, D'Onofriok eta Benheim-ek (2019) argudiatzen dute bokal zenbait gauzatzean aldeak daudela eskola katolikora eta publikora joan direnen artean. Gurean, Ensunzak (2012) ikastetxe batean edo bestean ikasi izanak Gernika-Lumoko euskararen aldagai batzuetan duen eragina aztertu zuen, eta ondorioztatu eskola pribatuan ikasiak berritzaile direla.

Ikastetxearen arabera aldakortasuna euskararen gutxi ikertu bada ere, aldagai mesosozialak geroz eta ikertuagoak dira: Artzelusek (2020a, 2021) Garaziko euskararen aldakortasuna ikertzean, gaztetxeak, besta-komiteetakoak eta luzaidarrak bereizi zituen, eta erakutsi gaztetxeak Iparraldeko batuari lotzen zaizkiola, batez ere, arlo fonikoan; Hegoaldeko batuaren eragina dutela luzaidarrek, batez ere, morfologian; eta gordetzailenak komiteetakoak direla. Garcia-Palominok (2023), Bermeoko *-lako*n aldagaia aztertzean, arrantzaleak, kaletarrak eta baserritarrak bereizi zituen. Artzelusek (2026), berriz, Azpeitiko euskarako hikan pluralgileek duten aldakortasuna aztertzean, goiko kale-giroan, behekoan ibiltzen direnak eta bietan ibiltzen direnak bereizi ditu.

Generoari dagokionez, Labovek (1990, 2001) generoaren hatsarrea izendatu zuen: emakumeek ageriko prestigiozko aldaeren alde egiten dute. Horren haritik, Chambers-ek eta Trudgill-ek (1980/1998) izaera berritzaile hori justifikatzen zuten hainbat arrazoi eman zituzten. Eckert-ek (1989), alabaina, uste du emakumeek boterea hizkuntzaren bidez erdiesten dutela, indar fisikoaren bidez egin beharrean, eta, bide horretan, parte diren talde sozialean garrantzitsu diren forma linguistikoen alde egiten dutela; berritzaile vs gordetzaile dikotomiatik haratago joan behar dela defendatzen du, beraz, eta arau eta jokabide sozialak arakatu.

Caminok (2009) argudiatu du Euskal Herriko landa-eremuan emakumeak gizonak baino gordetzaileago izan ohi direla, gizonak baino aukera gutxiago izan baitute etxetik ateratzeko, tartean, bortura artzain edota ferietara, eta, beraz, harreman txikiagoa izan baitute beste hiztun batzuekin. Lujanbiok (2016), berriz, erakutsi du Goizuetan eta Araitz-Betelun hizkuntza-aldagai batzuetan emakume adintsuak gordetzaile direla, baina emakume gazteak berritzaile, nahiz eta emaitzak ezin diren orokortu. Haddicanek (2005) Oiarzunen gizon adintsuak emakumeak baino berritzaileago zirela ondorioztatu zuen *dut* vs *det* aldagaiari dagokionez. Dena den, aldakortasun handia dago gainerako aldagai batetik bestera. Gainera, aldagai batzuetan, generoa ez zen adierazgarri izan. Artzelusek (2021; 2022a) Garazin adintsuen artean ez zuen generoaren araberrako alde handirik atzeman, baina adinean behera joan ahala, hainbat kasutan emakumeak aldaketaren buruan zeudela frogatu zuen. Bermeoko euskararen ere generoaren hatsarrea (Labov, 2001) betetzen zela ondorioztatu zuten Gamindek eta bestek (2012) eta Garcia-Palominok (2021). Gernikako euskararen Gondrak eta bestek (2024) ere emakumeen izaera berritzailea frogatu dute, ergatibo gutxiago gauzatzen baitute; behetik gorako aldaketa baten buru dira, beraz. Hala baieztatu zuen Ensunzak (2012) Busturialdean, hainbat aldagairi dagokionez ere. Boiseko euskal diasporan emaitza kontrajarriak bildu ditu Franco-Landak (2025): inkesta-erako probetan emakumeak gehiago jarraitu zaizkio arauari; hots, ergatiboa sarriagotan gauzatu dute gizonak baino; haatik, hizketa librean, gutxiago gauzatu dute.

Emakumeak berritzaile direla frogatzetik harago, hizkuntza-aldaera jakin bat feminotasunarekin edota maskulinitasunarekin indexatuta egon litekeela iradoki dute hainbat lanek. Besteak beste, erakutsi dute mendebaldeko euskararen gizonetako gazteek txistukariak sabaiaurreko neutralizatzen dituztela, eta emakumezkoek, aldiz, hobikari (Gaminde *et al.*, 2012; Muxika-Loitzate, 2020). Artzelusek (2021) dioenez, berriz, Garaziko emakumezkoek [t, d] herskari horzkariak lepokari ahoskatzen dituzte.

2.2 Erdialdeko euskararen eragina

Nahiz eta euskara batua, batez ere, erdialdeko euskalkietan oinarriturik egon, hurrenez hurren, *gipuzkera*, *nafrerra* eta *lapurtera* deitu izan direnetan (Mitxelena, 1968), Gipuzkoako eremu ugariatako hizkerak barne hartzen dituen erdialdeko euskalkira begira dagoela dirudi, gaur egun (Kintana, 1992ko ekainaren 18a; Maia, 2000; Palazzo, 1992ko urtarrilaren 14a). Gipuzkoa da Euskal Herrian euskal hiztun gehien eta erabilerarik altuena duen lurraldea (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza

Politika Saila *et al.*, 2023), eta Euskal Herriko bigarren lurralderik jendetsuena da (Gaindegia, 2019). Halaber, Donostia da euskaldun kopururik handiena eta euskararen erabilera-ehunekorik altuena duen hiria (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2021). Gainera, ez da ahaztu behar Gipuzkoako Beterriko euskarak mendeetan izan duen ospea (Hurtado, 2001; Ibarra, 1994; Olano, 1998, 2000; Zuazo, 1988, 1989, 2003). Arrazoi horiek eragin dukete erdialdeko euskarak, Hegoaldean, behintzat, euskara batuan pisua izatea.

Azkaratek (1992) euskara batuaren eta estandarraren arteko desberdintasuna egiten du. Lehenbizikoa Euskaltzaindiak morfologiarako, ortografiarako eta lexikorako eman arauak osatuko lukete, eta bigarrena, berriz, hiztunek horretarik abiatuak garatu duten barietate zehaztuagoa edo partziala da, nolabait esateko hiztunek batutzat dutena. Salaburuk (1994, 681.-682. or.) euskara batu formal izendatu zuen lehenbizikoa, eta euskara batu soziologiko, bigarrena. Ausartuko ginateke esatera Hegoaldean estandarrek edo euskara batu soziologikoak erdialdeko euskarako hainbat hizkuntza-ezaugarri dituela, Iparraldean ez bezala.

Koldo Zuazok (1988) Hego Euskal Herriko hainbat herritako hiztunen testigantzak bildu zituen erdialdeko euskararekiko pertzepzioa zein den jakiteko asmoz. Adierazpen horiek agerian utzi zuten erdialdeko euskarari, eta bereziki Gipuzkoako eremu zehatz batzuetan hitz egiten denari, ageriko prestigio handia eman zaiola. Erdialdeko euskarari esleitu zaizkion dohainen artean fintasuna, egokitasuna eta ulergarritasuna daude, eta hizkera horri emandako ospeak bestelako euskalki batzuen inguruan iritzi negatiboa izatea eragin du; izan ere, erdialdeko euskararen hitz egiten ez zuten askok haien hizkera propioa gutxietsi ere egin dute (Zuazo, 1988).

Erdialdeko euskararen, eta, batez ere, hari begira dagoen euskara batuaren eragina euskarazko lan barietadista ugari aipatu dute. Besteak beste, Artzelusek (2021) Frantziako eta Espainiako estatuen arteko mugatik hegoaldera dagoen Luzaide herriko gazteen artean erdialdeko euskararen ohikoak diren *nuen* → *nun* erako laburtzapenak bildu ditu, nahiz eta hango euskararen *niin* erakoak izan nagusi eta nafar-lapurtera literarioan edota euskara batuan *nuen* erako forma osoak. Era berean, [n]-z bukaturiko aditzen ondotik etorkizuneko *-go* atzizkia ere zabaltzen ari da, nahiz eta *-en* ere euskara batuan onarturik egon.

Ildo beretik, erdialdeko euskararen saihetsean dauden Nafarroa iparraldeko Goizuetako eta Araitz-Beteluko udalerrietako hizkeretan ere erdialdeko euskararen presentzia areagotzen ari dela ondorioztatu zuen Lujanbiok (2016). Horretan eragina izan duke azken hamarkada hauetan hango biztanleek beharrian handia izateak Hernanira zein Tolosara joateko (Lujanbio, 2016). Horren isla izan liteke Goizuetako ezaugarri hauen erabilera apaltzea: *-ko(t)z*, *eskuara* edo *gunun* (Lujanbio, 2016), baita Araitz-Betelun *dot* edo *dut* erako aditzak erabili beharrean *det* erakoak erabiltzea ere.

Oiartzunen ere Haddicanek (2005) erakutsi zuen gazteen hizkeran erdialdeko euskara geroz eta eragin handiagoa izaten ari dela, besteak beste, Lesakarekiko harreman

urriagoaren eta Donostia inguruarekiko loturaren eraginez. Horretan eragina dukete azken hamarkadetan gertatutako aldaketa sozial eta ekonomikoek, tartean, 1975az geroztik areagotu diren urbanizazioak, mugikortasunak eta bizimodu-aldaketek (Haddican, 2005). Horren adierazle dira *dut* erako aditzen ordez *det* erakoak maizago erabiltzea, baita *zera* erakoak erabiltzea ere, *za* erakoen ordez.

Azken hamarkadetan euskara hutseko hezkuntza nagusitu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eremu euskaldunean. Hori dela eta, guraso erdaldunak dituzten hainbat haur eta gaztek eskolari esker eskuratu ahal izan dute euskara. Urlaren (1993) arabera, *hiztun berri* izenda genitzake. Bizkaiko eskola batzuetan salbu, eskolan euskara batua aldaera ikasi dute. Hala ere, horietako gazte ugariak lotsa edo zilegitasunik eza sentitzen dute euskaraz hitz egiteko (Berezartua & Muguruza, 2019; Franco-Landa, 2025), euskara autentikorik ez dutelakoan. Areago, gazte ugariak prestigio gordea eta autentikotasuna atxikitzen dizkiete euskalkiei (Amorrortu, 2000; Echeverria, 2001; Ortega *et al.*, 2015, 2016; Rodríguez-Ordóñez, 2020; Urla *et al.*, 2018). Hori lortze aldera, hainbat gazte saiatzen dira egunerokoan entzun dituzten euskalki bizietako ezaugarriak txertatzen beren solasean (Ibarra, 2011).

Euskarari buruzko lan bariazionista gehienek azpimarratu izan dute euskara batua-
ren eragina hizkuntza aldaketan, esaterako, Aurrekoetxeak (2006). Alabaina, euskalkiek duten prestigioaren aurrean, hiztun berriek euskalkietako formak ere bere egiten dituztelakoan gaude. Gaur egun, ohikoa da Donostia inguruko gazteek, nahiz eta hiztun berriak izan, erdialdeko euskarako zenbait aldaeraren alde egitea, adibidez, *det* (*dut*-en ordez), *gera* (*gara*-ren ordez) edota *zan* (*zen*-en ordez). Forma horien erakargarritasunaren aurrean, gaude Irungo hiztun berriek ere ez ote dituzten erdialdeko forma horiek aldeztu autentikotasuna lortzeko, nahiz eta Irungo berezkoak *dut*, *gara* edota *zen* izan, euskara batuan bezala.

2.3 Irungo euskara

Bonapartek 1863an Iparraldeko goi-nafarreraren barnean kokatu zuen Irungo euskara, eta aldaera beregaina osatzen zuela erabaki zuen. Hala berretsi zuen hurrengo mendearen bukaeran Irizarrek berak ere (Irizar, 1992). Azken horrentzat bildutako aditz laguntzaileei erreparatuta, hainbat adibide ditugu pentsatzeko Irungo euskara, Gipuzkoan kokatuta egon arren, ekialdera begira dagoela, nahiz eta probintziako hizkerak nolabaiteko ageriko prestigioa izan (Irizar, 1992):

La forma general de esta flexión en la variedad de Irún es *dut* que ha sido consignada con carácter exclusivo en los municipios de Irún, Fuenterrabía, Lezo, Arano y Goizueta y en el núcleo urbano de Oyarzun y en sus barrios de Ergoyen y Gurutze. En Iturrioz, barrio asimismo de Oyarzun, también se recogió la forma *dut*, pero en este lugar en concurrencia con la forma *det*. Respecto al uso de estas dos formas en el citado barrio, dicen nuestros colaboradores, San Román y Alberdi: «*Det*, *dut*, ohizkoa bigarren hau da, dudarik gabe. Lehena nolazpaiteko izenaren jabe da» (Irizar, 1992, 373. or.).

Irizarren (1992) hitzetan, Bonapartek *det / dot / dut* formen erabilerari erabat erreparatzen zion, maila altuko oinarritzko ezaugarri dialektaltzat hartzen baitzituen **edun* aditzaren aldaerak euskalkien sailkapena egiteko orduan. Nafar kutsua duen Irungo euskarako beste adibide adierazgarri bat litzateke *-it-* pluralgilea aditz laguntzaile ditransitiboetan erabiltzea (Irizar, 1992). Pluralgileko [t] → [c] palatalizatu egiten da, eta, ondoren, laguntzailearen hasierako *di-* erortzen denean, *ttiet* ‘dizkiet’ bezalako formak dira emaitza.

Zuazok (2003) Gipuzkoa eta inguruetan mintzo zen euskalkiari *erdialdeko euskalki* izendapena eman zion, eta haren barnean kokatu zuen Irungoa; beraz, nafar euskalkitik bereiz utzi zuen, nahiz eta bien tarteko hizkera zela aitortu. Erdialdeko euskarako sortaldeko aldaeran kokatu zuen Erreterria bitarteko herrietako eta Nafarroa ipar-mendebaldeko hainbat mintzorekin batera. Gainera, gehitu zuen azken urte hauetan erdialdeko hizkeretara gerturatzen ari dela (Zuazo, 2003).

Aurrekoetxeak eta bestek (2019) EHHako datuetan oinarrituz egin zuten euskalkien sailkapen berrian hiru euskalki bereizi zituzten: mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa, eta Irungo euskara bigarrenetan kokatu zuten. Sailkapenaren hierarkia-mailan behera eginez gero, lau multzo bereizi zituzten eta Irungo hizkera Gipuzkoa eta Nafarroa iparraldeko hizkerekin batera sailkatu zuten. Azkenik, hierarkian oraindik gehiago jaitsita, Gipuzkoako (Debagoiena salbu) eta Nafarroa iparraldeko hizkerak bereiz sailkatu zituzten eta Irungo euskara lehenengoaren barnean sartu zuten.


Txomin Sagarzazuk (2005) Hondarribiko eta Irungo euskara xeheki aztertu zituen. Aipatzen du Irungo eta Hondarribiko hizkerak goi-nafarreraren, nafar-lapurteraren eta erdialdeko hizkeren artean kokatzen direla. Hala ere, bere aburuz, Irungoak du gaur egun erdialdeko euskararekin antzekotasunik handiena. Esate baterako, aditzaren morfologian, belaunaldi gazteen artean *-zki-* pluralgilearen forma erabiltzeko joera areagotu egin da aditz ditransitiboetan. Lexikoan ere *atze* eta *aurre*, *Erromako zubi*, *guraize*, *jarri* eta bestelako hitz batzuk erdialdeko edo mendebaldeko hizkeretan errotuago daude. *Aitzin* eta *gibel*, *ortzadar*, *aiztur*, *pa(ra)tu*, berriz, Irundik ekialderago dauden herrietan maizago entzuten dira. Arlo fonikoan, ordea, Nafarroara begira jarritzen gaituzte Irunen erabiltzen diren aferesiak eta sinkopak.

Aipatu berri dugun Oiartzungo euskararen bilakaerak antzekotasun nabarmenak ditu Irungo euskararenarekin. Haddicanek (2005) dioenez, Oiartzun, Lezo, Erreterria, Hondarribia eta Irun historikoki eta politikoki Gipuzkoaren mende egon diren arren, toki horietako euskarak mendeetan zehar euskara nafarrerarekin lotura estua izan du, besteak beste, Nafarroako herrietako biztanleekin gehiagotan elkartzen baitziren bertako biztanleak. Hala eta guztiz ere, azken mende edo hamarkada hauetan, Gipuzkoako aldaeren alde egin dute eremu horietako euskaldunek, eta horren ondorioz, nafarrak galtzen ari dira.

Irun, azken finean, nahiz eta administratiboki Gipuzkoan kokaturik dagoen, hango hizkera historikoki goi-nafarreratik gertuago egon da. Hala ere, Oiartzunen gertatzen

den bezala, Gipuzkoako hizkerekiko harremanak areagotu egin diren heinean, erdialdeko euskararen ezaugarriak geroz eta gehiago barneratzen ari direla esan dezakegu. Hala baieztatzen du Sagarzazuk (2005) ere. Erdialdeko euskararen ageriko prestigioaren berri ere ematen du, gainera; izan ere, adintsuek **edun* aditzeko *-e-dun* formen alde egiten dutela zehazten du hizkera-maila jasoan.


Irungo euskararen jakintzari eta erabilerari helduko diogu jarraian. Euskal Herriko hainbat eremutako joerari jarraituz, jakintzak gora egin du Irunen ere, baina erabilerarekiko aldea nabarmena da, eta, gainera, azken hori, nolabait, ez atzera ez aurrera dabil aspaldian. Areago, jaitsi ere egin da. Euskararen Adierazle Sistemaren (aurrerantzean EAS) (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2021) arabera, 1. irudiak euskararen azken urteetako jakintzaren bilakaera azaltzen du.



1. irudia. Irungo euskararen jakintzaren bilakaera (iturria: egileek sortua, EASEko datuetan oinarrituta).

Datuek argi erakusten dute jakintza igo egin dela Irunen azken hamarkadetan eta 2021ean euskaldunen kopurua ia erdaldun elebakarrenera iritsi da.


Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketari dagokionez, ez dugu Irungo daturik aurkitu, Bidaso Beherekoak (Irun eta Hondarribia), baizik. EASEk ohartarazten duenez, datuak hurbilpentzat baino ez daitezke hartu errore marjina-handia dela eta.



2. irudia. Bidaso Behereko euskararen kale-erabileraren bilakaera adin-taldearen arabera (EAS) (iturria: egileek sortua, EASeko datuetan oinarrituta).

Kale erabileraren datuek jakintzarenen kontrakoa islatzen dute: geroz eta gutxiago erabiltzen da euskara Bidaso Beherean, eta jauzia nabarmena izan da 2016tik 2021era, gainera. Haurrek erabiltzen dute gehien, eta gutxien, berriz, adintsuek eta gazteek.

Era berean, Siadecok (2017) 1984 eta 2016 bitartean ere egin ditu neurketak Irunen. Horien emaitzak dakartzagu 3. irudian adin taldeen arabera.



3. irudia. Irungo euskararen kale-erabileraren bilakaera adin-taldearen arabera (Siadeco) (iturria: Siadeco (2017). Egileek moldatua).

Joera positiboagoa ageri dute Siadecoren (2017) datuek, eta 2007tik 2016ra igoera egon dela ikusten da. Hala ere, 2021ko daturik ez dago. Kasu honetan ere haurrek erabiltzen dute gehien, eta adintsuek gutxien. Dena den, euskararen jakintzarekin konparatuz, erabileraren igoera askoz ere apalagoa da.

Beharakada horren arrazoiak azaltzeak lan honen mugak gainditzen ditu, baina argi dago politika publikoak eta Irunen orokorturik dagoen D eredua ez direla aski izan azken urteotan euskararen erabilera orokorrean eragiteko.

3 METODOLOGIA

3.1 Datu-bilketa eta azterketa

Elkarrizketaturiko lekukoak irundarrak dira guztiak, eta euskara etxean ikasi dutenek gurasoetako bat, behinik behin, irundarra dute. Lekukoak hautatzeko laginarekin hasita, ez probabilistikoa erabili dugu; hau da, ez dira zoriz aukeratu, ikertzaileak berak egin du lan hori. Kuotazko laginketa erabili da, esan nahi baita, aldagai askeak finkatu dira, eta horien arabera, lekuko kopuru bera aukeratu dugu bakoitzeko (Milroy & Gordon, 2003). Metodologia hori aukeratzearen arrazoia da Milroyk (1980) ezagun bihurtutako *lagunaren laguna* teknika erabiltzea; hau da, ikertzaileak bere lagunak elkarrizketatzea lehenik, eta, ondoren, lagun horien lagunak, nahikoa lekuko lortu ez badu. Horrek lekukoarekin konfiantzazko edo are laguntasunezko harremana lortzea errazten du, eta horri esker, hizkera *vernaculara* edota egunerokoa, laxoa, lortu nahi izan da, hiztunak ahalik eta gutxien kontrolatua. Behin, lagunengandik abiatuta, haien ezagun eta lagunengana jo du ikerleak elur-pilota efektuaren bidez (Hernández-Campoy & Almeida, 2005); horrela, konfiantzazko harremanari eutsi nahi izan zaio, helburu bera gogoan. Inkestatzailea irundarra eta gaztea izateak ere erraztu du zeregin hori. Denera, 12 lekuko elkarrizketatu dira, aldagai askeen arteko gurutzaketa bakoitzeko bana.

1. taula. Elkarrizketatutako hiztunen profil soziolinguistikoa

Ikastetxea	La Salle	Sainte Marie	Txingudi
Transmisioa			
Eskolan	Neska	Neska	Neska
	Mutila	Mutila	Mutila
Etxean	Neska	Neska	Neska
	Mutila	Mutila	Mutila

Jakin badakigu aldagai aske konbinazio bakoitzeko lekuko bana elkarrizketatzea estatistikoki emaitza fidagarriak lortzeko oztopo dela. Dena den, denborak mugatu du gure lana, eta, hori dela eta, hiztun kopuruari langa jartzera behartuta ikusi dugu geure burua. Hori dela eta, ikerketa honen emaitzak lehen hurbilpentzat hartu behar genituzke, eta etorkizuneko ikerketetan lagina handitzea baitezpadakoa litzateke emaitza fidagarriagoak lortzeko.

Datuak biltzeko metodologiari dagokionez, berriz, elkarrizketa erdi-gidatuaren aldeko hautua egin dugu. Hau da, lekukoari libreki hitz egiten uztea lehenetsi da, inkesta erako galderak egin beharrean. Horren bidez, urduritasuna gutxitu nahi izan da. Dena den, komenigarria iruditu zaigu gai batzuk aurrez prestatu eramatea, alde batetik, gehiegizko inprobisazioa eta zer esan jakin gabe gelditzea ekiditeko, eta, bestetik, hizkuntza-jarrerari eta hizkuntza-ohiturei buruzko berri zehatzagoa izateko. Gai hauek izan ditugu hizpide: euskararen erabilera, giza harremanak eta hizkuntza-jarrerak. Lehenbizikoari dagokionez, euskara norekin erabiltzen duten, euskarazko edukiak kontsumitzen dituzten eta bizitzan zehar erabileran alderik izan duten galdetu diegu. Bigarrenari erreparatu, galdetu diegu ia nongo lagunak dituzten, nora joaten diren parrandan, aisialdian Irundik atera ohi diren eta nora eta ikasketak non egin dituzten. Azkenik, hirugarren atalean, hizpide izan dugu ia zer harreman/iritzi duten euskara batuari buruz/euskalkiari buruz, Irunen beren ustez ba ote dagoen euskalkirik, eta, azkenik, ia aztergai ditugun hizkuntza-aldeak erabiltzen dituzten eta horien inguruko iritzirik baduten. Galdera horiek azken lekuan egin ditugu, elkarrizketan zehar horiek erabiltzearen inguruko kontzientzia emenda ez dakien. Informazio kualitatibo horri esker, ondorio zehatzagoak atera ahal izango dugulakoan gaude. Elkarrizketak banaka egin ditugu eta ordubete inguru iraun dute.

Grabaketak iPhone 13 mini mugikorrarekin egin ditugu .wav formatuan. Mugikorraren mikrofonoa lekukoarengandik hurbil kokatzen saiatu gara uneoro grabaketaren kalitatea ahalik eta onena izan zedin. Gailu horren alde egitearen helburua grabagailuak eragiten duen tentsioa baretzea izan da, mugikorra gazteen bizimoduan erabat errotuta baitago, hots, ohikoa baitzaie mahai gainean ikustea.

Datuak aztertzeko eta prozesatzeko metodologiari dagokionez, *Praat* programa (Boersma & Weeninck, 2024) erabili dugu transkribatzeko, eta datu-basea sortu dugu *Excel* programarekin .csv formatuan. *RStudio* (R Core Team, 2025) erabili dugu grafikoak egiteko, *ggplot2* paketearen (Wickham, 2016) bidez, eta erregresio logistiko binomial mistoa egiteko, *lme4* paketea *Generalized Linear Model* delako frogaren bidez (Bates *et al.*, 2015). Aurreikusleen estimazioak egiteko, berriz, *emmeans* (Lenth & Piaskowski, 2025) paketea erabili dugu.

Aurreikusleak, alde batetik, faktore sozialak izan dira; hau da, transmisioa, ikastetxea eta generoa, eta, bestetik, kasuan kasuko hizkuntza-faktoreak: absolutiboko pertsona -e- *vs* -a- *izan aditzetan* aldagaian; ergatiboko pertsona -e- *vs* -u- *erroak* **edun aditzetan* aldagaian eta *eduki* *vs* **edunen*, denbora *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean -e- edo -a- izatean eta *eduki* *vs* **edun*-en eta numeroa *eduki* *vs* **edun*-en. *Intercepta* eskolan ikasiek, La Salle ikastetxekoek eta mutilek osatzen dute, eta hizkuntza-faktoreak ere kontuan hartu diren kasuetan, absolutiboko edo ergatiboko lehen pertsona singularrak, orainaldiak eta singularrak. Aurreikusleen arteko gurutzaketarik ez dugu egin, batetik, horretara eramango gintuzkeen hipotesirik ez dugulako, eta, bestetik, aurreikusleen batez bestekoak eta desbideraketa orokorrak kalkulatu ostean, ez dugulako horretara bide emango digun aldaeren arteko loturarik kaunitu.

3.2 Aldagai askeak

Aldagai askeei erreparatuz, gazteen (18-25 urte bitartekoen, 2000 eta 2007 urteen bitartean jaioen) mintzoa baino ez dugu aztertu, eta horien barnean, honakoak aukeratu ditugu: transmisioa (euskara etxean jaso duten ala eskolan), ikastetxea (Sainte Marie vs La Salle vs Txingudi Ikastola) eta generoa (neskak vs mutilak).

Lan honen berrikusle anonimo batek zehaztu digun bezala, Irungo euskara gaur egun anabasa handia da: 2.3. atalean zehaztu dugun bezala, bertako hizkera tradizionala hainbat euskalkiren arteko bidegurutzean dago; gainera, XX. mendearen erdialdean euskaldun kopurua asko jaitsi da, kanpotik etorritako jendea gehienetan ez zelako euskalduna, eta transmisioa bera ere neurri batean murriztu egin delako. Hori gutxi balitz bezala, euskara batuaren azken hamarkadetako presentziak izaera «nahasi» hori areagotu du. Hiztunek aldaera bat edo bestea erabiltzean eragina duten aldagai askeak zehaztea ez da zeregin erraza, hiztun bakoitzaren hizkuntza-esperientzia bera ere desberdina baita: baliteke Bortzirietan familia duen gazte batek ekialdeko formen alde egitea edota Donostiara ikastera joan den beste batek han entzundakoak bereganatu izana.

Gaur egun, euskararen presentzia aski ahula da herrian, eta bertako hizkera tradizionalarena areago. Dena den, 3.3. atalean azalduko dugun bezala, aukeratu ditugun hizkuntza-aldagaiak Irungo euskararen eta euskara batuan berdin eta erdialdeko euskararen desberdin esaten dira, eta, beraz, euskara batuak, hein batean, Irungo aldaera horiei eusten lagundu dielakoan gaude. Hala dio Sagarzazuk (2005) berak ere **edun* aditzeko *-udun* adizkiez. Hori dela eta, euskararen presentzia edota *input* handiagoa duten kasuetan Irungo (eta euskara batuko) aldaera horiek biziago egongo direlakoan gaude.

Transmisioari erreparatuz, euskara etxean ikasitakoak eta eskolan ikasi dutenak bereizi ditugu. 2.2. atalean ikusi dugu hiztun berriek maiz natiboek ez bezalako hizkuntza-aldaketak abiatzen eta hedatzen dituztela. Gure hipotesia da gurasoetako bat irundarra duten eta euskara lehenik etxean ikasi dutenek Irungo (eta kasu honetan euskara batuko) aldaerekin harreman estuagoa izan dutela, neurri batean, behintzat. Etxean gaztelaniaz aritzen direnek, berriz, euskal hiztun gisa zilegiztatzeko etxean entzun ez dituzten euskalkiko formen bila hastean, inguruan mai-zen entzuten dituzten euskalkiko formen bila abiatu direlakoan gaude, hain zuzen ere, hurbilen duten eta euskaldunena den hirian, Donostian, erabiltzen direnetera; erdialdekoetara, alegia.

Ikastetxea aldagaia ere aztertu dugu. Eskola faktore oso garrantzitsua da gazteak sozializatzeko eta identitatea eraikitzeke orduan. Ikastetxe bakoitza identitate jakin batekin lotu ohi da, haurrak horietara bidaltzen dituzten gurasoen maila sozio-ekonomikoak, hizkuntza-ideologiek eta ikastetxe horiei atxikitzen zaizkien konnotazio sozialak eraginda. Horrez gain, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-politikak ere desberdinak izan ohi dira. Horrek, nola ez, han ikasten duten ikasleen hizkuntza-ohituretan ere eragina du 2.2. atalean ikusi bezala. Etxeko hizkuntzari eta euskararen erabilerari

dagokionez, Zabalak (2013), Irunen bezala, Tolosan ere eskola bakoitzean errealitate soziolinguistiko oso desberdina dagoela erakutsi zuen, eta, hori dela eta, eskola alda-gaia kontuan hartu zuen bere ikerketa gauzatzeko orduan. Horrek guztiak badu lotura Milroyren (1980) sare sozialen teoriarekin, eta, areago, praktika komunitateenarekin (Eckert & McConnell-Ginet, 1992; Meyerhoff, 2002): ideia eta identitate jakin berdina duten irakasle zein ikasleak elkarrekin sozializatzeko eta elkarrekin aritzeko abagunea ematen du eskolak. Ikastetxeko nahiz ikastetxetik kanpoko ekintzetan eta bizitzan aktiboki parte hartuz gero, gainera, helburu ideologiko eta identitario jakin batzuk izan litzaketen praktikek elkartzen dituzte. Euskarak funtsezko lekua hartzen du horretan guztian; hain zuzen ere, giro euskaltzalea duten eskoletan euskararen presentzia handiagoa izango da, eta alderantziz. Atalaren hasieran esandakoarekin lotura eginez, euskara biziago dagoen eskoletan Irungo aldaera tradizionalak, euskara batukoak ere badirenek, presentzia handiagoa izango dutelakoan gaude, gurasoetako asko irungo euskaldunak ere badiren aldetik; euskarak indar apala duen ikastetxeetan, ordea, Irungo euskararen eredu apalagoa eta euskal hiztun gisa zilegiztatzeko beharra dela eta, ikasleek indartsu eta hurbil dagoen erdialdeko euskara erreferentziazat hartuko dutelakoan gaude.

Lan honetan, hiru ikastetxe hautatu dira: Irungo La Salle, Donibane Lohizuneko Sainte Marie eta Irungo Txingudi Ikastola. Nahiz eta Sainte Marie Donibane Lohizunen egon, hainbat guraso irundarrek, besteak beste, hara bidaltzen dituzte haurrak frantsesa ongi ikasi ahal izan dezaten eta hango hezkuntza-sistemaren ezaugarriak erakarrita (Txikis del Bidasoa, 2025). Ikastetxe horretan euskararen presentzia oso urria da: bi hizkuntza-eredu eskaintzen dira (frantses-euskara elebiduna eta frantses elebakarra), baina ez dago dena euskaraz ikasteko aukerarik. Frantsesari ematen zaio lehentasuna eta ikasleen artean frantsesa eta gaztelania dira hizkuntza nagusiak, Hegoaldetik, tartean, Irundik, frantsesa ikastera doan ikasle asko baitago. Euskara arlo akademikoan erabiltzen da nagusiki, eta ikasleen maila orokorra nahiko apala da.

La Salle ikastetxean eta Txingudi ikastolan euskara hutsezko D ereduan ikasten dute haur eta gaztetxoek. Lehenbizikoa kontzertatua da, eta, bigarrena, berriz, 1994an bilakatu zen publiko (Txingudi Ikastola, 2026). Dena den, euskal giroaren aldetik aldea dago ikastetxe batetik bestera: euskal giroa handiagoa da Txingudi Ikastolan eta euskararen aldeko borroka indartsuagoa izan da azken hamarkadetan; besteak beste, 1962-63 ikasturtean ateak zabaldu zituenetik legez kanpo jardun zuen euskarazko hezkuntza eskaintzen 1972ra arte (Txingudi Ikastola, 2026). Zenbaki zehatzak emateko azterketa sakonagoak egin behar badira ere, ikasleek aski euskara gutxi erabiltzen dute bi eskoletan, baina Ikastolaren kontzientzia euskaltzaleagoa dela eta, errazagoa da han euskarazko giroarekin harremana izatea. Euskararen erabileran eragina duten faktoreen sarea korapilatsua bada ere, ukaezina da eskolaren eragina gazteen sare-sozialak eta hizkuntza-ohiturak finkatzeko orduan.

Hori dela eta, euskararen presentzia apalagoa duen La Sallen erdialdeko euskararen presentzia handiagoa izatea espero dugu, inguruan presente izan ez duten euskalkiaren hutsunea asetzeko, erdialdekoaz elikatuko direla uste baitugu, eta, horrela, euskal

hiztun gisa zilegiztatuko. Txingudi Ikastolako giro euskaltzaleagoak, ordea, Irungo (eta euskara batuko) aldaerei hobeki eusten lagunduko diela uste dugu. Sainte-Marien erdialdeko euskarak pisu txikia du, oro har; handiagoa, ordea, euskara batuak, edota, areago, Iparraldeko batuak. Irungo euskararen erabiltzen diren eta aztergai ditugun aldaera ugari Iparraldeko batuan ere ohikoak izateak eragin lezake, alde batetik, gazteak forma horietarantz lerratzea, baina, beste alde batetik, gerta liteke hiztunak erdialdeko euskararen bidez izaera Gipuzkoarra edota Hegoaldekoa (eta ez lapurtarra edo Iparraldekoa) azpimarratu nahi izatea ere.

Generoari dagokionez, neskak eta mutilak bereizi ditugu. Interesgarria zatekeen bestelako genero-identitateak dituzten gazteak ere elkarrizketatzea, baina ohiko bi taldeetan beste lekuko aurkitzeko ezintasunak banaketa bitarra egitera eramanez gaitu.

3.3 Mendeko aldagaien hautaketa

Lan honetan, euskarari buruzko lan bariasionista gehienek esan izan dutenaz bestalde, frogatu nahi dugu euskararen baitako hizkuntza-aldaketetan ez duela euskara batuak bakarrik eragiten, baizik eta inguruko hizkera batzuetako eragina uste baino handiagoa izan litekeela, kasu honetan erdialdeko euskararena. Hala frogatu du, besteak beste, Haddicanek (2005) Oiartzunen. Horretarako, Irungo euskararen eta euskara batuan berak diren aldaerak hartu ditugu aintzat, baina erdialdeko euskararen desberdina direnak. Gure hipotesia da beste giza talde batzuen artean, batez ere, gazteek, neskak, euskara eskolan ikasiek eta La Salle eskolan ibiliek erdialdeko formak aldeztuko dituztela, eta Irungoak eta euskara batukoak bazterrerara utziko.

Lehenik, *izan* aditzaren *-a-* vs *-e-* erroko formak (adib. *zara*, *gara* vs *zera*, *gera*)² aztertuko ditugu. Txomin Sagarzazuk (2005, 74. or.) adierazten duenez, Hondarribian eta Irunen ohikoa zen garai batean ere *-e-* (*zera*) zein *-a-* (*zara*) erroko formak entzutea. Hala ere, XX. mendearen amaieratik aurrera, erdialdeko euskararen forma (*zera*) nagusitzen ari zela ondorioztatu zuen. Gauzak horrela, erdialdeko euskararen eragina gazteengan oraindik handiagoa dela onartzen badugu, informatzaileen ahoetatik euskara batuko *zara* eta *gararen* adibide gutxi aurkitzea espero beharko genuke. *Izan* aditzaren forma trinkoak *-e-* errokoak izatea ohikoa da, bereziki, Gipuzkoako hizkeretan EHHako 1277. mapan ageri den bezala (Euskaltzaindia, 2008-2019). Hizkuntza-faktoreei dagokienez, Haddicanek (2005) erakutsi zuen *-e-* erroa ohikoagoa dela lehenengo pertsonan bigarrenean baino. Beraz, faktore sozialekin batera, absolutiboko pertsona ere kontuan hartu da.

Bigarrenik, *izan* aditzaren hirugarren pertsonako iraganaldiko formak eta orainaldian *-(e)la* edo *-(e)n* menderagailuak hartzen dituztenak aztertu ditugu. Sagarzazuk (2005) azaltzen duenez, bai Hondarribian, bai Irunen ohikoa da *den* zein *zen* formak erabiltzea. Lujanbiok (2016) dio, Zuazoren (1998, 2003) banaketan oinarrituta, ezaugarri hori «Euskal Herria bitan bereizten duen ezaugarria» dela, *izan* ere, ekialdeko

2 Bigarren pertsona pluraleko formarik, *zarete/zate* vs *zerate* erakorik ez dugu bildu lekukoaren ahotik.

hiztunek *den* eta *zen* formak erabiltzen dituzte, eta mendebaldeko hiztunek, berriz, *dan* eta *zan*. EHHako 1282. mapan ikus daiteke *-a-* erroko formak mendebaldean erabiltzen direla, eta *-e-* errokoak, berriz, ekialdean (Euskaltzaindia, 2008-2019). Hizkuntza-aldagai honetan denbora (orainaldia vs lehenaldia) ere kontuan hartu dugu datuen azterketan.

Hirugarren ezaugarria *-e-* edo *-u-* erroa da **edun* aditzetan; hau da, absolutiboan hirugarren pertsona singularra duten orainaldiko aditz laguntzaileetan. Sagarzazuren arabera (2005), *det*, *dek/den*, *dezu*, *degu*, *dezue* moduko formak hizkera formalarekin lotzen zituzten garai bateko Irungo eta Hondarribiko hainbat hiztunek; dena den, Bidaso Behereko jatorrizko formak *-u-* erroko **edun* aditzak dira (*dut*, *duzu*, *dugu*, etab.). Gaur egun, ordea, *-e-* erroko formek gero eta presentzia handiagoa dute zonaldeko gazteen hizkeran, eta esan daiteke aldaera horiek erdialdeko euskararekin estu lotuta daudela. Euskalki horren ezaugarri eskusibotzat ditu Zuazok (1998). Had-dicanek (2003) Oiartzunen erakutsi zuen *-u-* erroa lehen pertsona pluralarekin dela ohikoen, bigarren singular zukakoarekin ondoren, hikakoarekin jarraian eta lehen pertsona singularrarekin azkenik. Ergatiboko pertsona kontuan hartu dugu, beraz, aldagai honetan.

Lexikoari dagozkion ezaugarri batzuk ere hautatu dira, tartean, *deus* vs *ezer*. Txomin Sagarzazuk (2005) adierazten duenez, *ezer* ezezko polaritateko izenordainak oso gutxi erabili dituzte Bidaso Behereko euskaldunek. Horrenbestez, esan daiteke garai batean *deus* forma nagusi zela eskualde honetan, eta hori bat dator Nafarroako zein Ipar Euskal Herriko euskararekin. *Ezer*, aldiz, erdialdeko (Lujanbio, 2016) eta mendebaldeko euskaretan ohikoa da.

Aski vs *nahiko* adberbioak ere aztertu ditugu. Sagarzazuren (2005) arabera, *aski* (ekialdeko euskarako hitza) eta *nahiko* (mendebaldeko euskarako hitza) biak erabiltzen ziren Bidaso Behereko eskualdean. Esaterako, Sagarzazuk jasotako elkarriketa batean Irungo hiztun batek bi formak txandakatzen zituen naturaltasun osoz. Dena den, erdialdeko euskararen eraginez, gazteek *nahiko* erabiltzea espero dugu.

Azkenik, azken ezaugarria jabetza adierazteko **edun* vs *eduki* aditzen gainean erakitako forma trinkoak dira. **edun* aditzari dagokionez, bi esanahi mota bereiz ginitzake: *nik sagar bat jan dut* (jabetzarik adierazten ez duen aditz laguntzailea) eta *nik sagar bat dut* (jabetza adierazten duen trinkoa). Bigarren adibide horrek *eduki* trinkoaren formaren adiera bera du: *nik sagar bat daukat*. Sagarzazuk (2005) adierazten du inguru horretako hizkeretan aditz trinkoak nahiko gutxi erabiltzen direla, nahiz eta Irunen ohikoagoa den *eduki* aditzaren forma trinkoak erabiltzea Hondarribian baino. Dena den, www.ahotsak.eus webguneko bideoetan (Badihardugu Euskara Elkartea, 2025) entzun daiteke bertako hiztunek ez dituztela beti *eduki* aditzaren forma trinkoak erabiltzen, eta askotan jotzen dutela **edun* aditzarenetara. Gaur egun, gazteen artean *eduki* aditzetikoak nagusitzen ari direlakoan gaude. EHHako 1433. maparen arabera, banaketa aski argia dago *eduki* aditza darabilten eta **edun* aditza darabiltenen artean: lehenengoa Euskal Herriko erdialdean eta mendebaldean erabiltzen da, gehienbat, eta

bigarrena, berriz, ekialdean. Hizkuntza-ezaugarri honetan numeroa, denbora eta erga-
tiboko pertsona hartu ditugu kontuan.

4 DATUEN AZTERKETA

Datuen azterketari helduko diogu jarraian. Irudietan, batetik, ezkerraldean aldaera
aske bakoitzeko batez besteko gordinak adieraziko ditugu izartxo bidez, eta hiztun
bakoitzaren batez bestekoak borobilez. Bestetik, eskuinaldean, analisi sintaktikoa oina-
rrizat harturik, estimazioak erakutsiko ditugu: puntu txiki beltzak mendeko aldaera
erabiltzeko batez besteko aurreikuspena adierazten du, eta beherantz eta gorantz luza-
tzen diren marrek, berriz, konfiantza-tarteak; hau da, ikerketa metodologia eta baldin-
tza berekin errepikatuko balitz, ezaugarri sozial berak dituen pertsona batek aztergai
dugun hizkuntza-aldaera batez besteko horretan eta konfiantza-tarte horien barruan
erabiltzea esperoko litzateke. Irudi horien azpian, lehenik, batez besteko estimazioak
eta konfiantza-tarte zehatzak emango ditugu parentesi karratuen artean, eta, ondoren,
gure interpretazioa eta komentarioak etorriko dira.

4.1 -e- vs -a- izan aditzean


4.1.1 Modelo estatistikoa

2. taula. Elkarriketatutako hiztunen profil soziolinguistikoa *Izan* aditzean -e- vs -a- erroak erabiltzeari dago-
kion analisi estatistikoa

Predictors	Odds Ratios	CI	p
(Intercept)	0.62	0.05-7.90	0.714
Transmisioa [Etxea]	2.13	0.23-19.64	0.506
Ikastetxea [Sainte Marie]	1.42	0.09-21.39	0.802
Ikastetxea [Txingudi]	0.56	0.04-8.33	0.673
Generoa [Neska]	0.67	0.07-6.09	0.726
Absolutiboko pertsona [gu]	1.21	0.57-2.56	0.619
Random Effects			
σ^2	3.29		
$\tau_{00\ tier}$	3.24		
ICC	0.50		
N_{tier}	12		
Observations	233		
Marginal R ² / Conditional R ²	0.038 / 0.515		

*Intercept*aren eta aldaera askeen arteko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

4.1.2 Transmisioaren arabera




4. irudia. *Zara eta gara* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak transmisioaren arabera.

Eskolan ikasien batez besteko estimazioa %34,16koa da [%9,16, %72,74], eta etxean ikasiena, %52,46koa [%19,73, %83,21].

Transmisioari dagokionez, joera ezberdinak erakusten dituzte batez bestekoek eta aurreikusleek. Lehenbizikoei dagokienez, euskara eskolan ikasiena etxean ikasi dutenena baino altuxeagoa da, beharbada, token kopuru handia duten hiztun batzuek hala eraginda. Alabaina, aurreikusleen estimazioei erreparatzen badiegu, kontrako joera ageri zaigu: euskara etxean ikasiek aukera handiagoa dute Irungo euskarako -a-dun formak erabiltzeko³. Horrek gure hipotesiekin bat egiten du, etxean ikasiek probabilitate handiagoa baitute Irungo euskarako eta euskara batuko formak erabiltzeko. Eskolan ikasiek, aldiz, aukera handiagoa dute mendebaldeko Gipuzkoatik datozkien forma berriak erabiltzeko. Dena den, bi taldeek antzeko probabilitate espazioa okupatzen dute eta batak bestearen media barne hartzen du; beraz, emaitzak tentuz hartu behar dira.

3 Hiztun batzuek token kopuru handia izatek, eta beste batzuek, berriz, gutxi, batez besteko gordinean eragiten du, token kopuru handia dutenek pisu handiagoa baitute batez bestekoan. Alabaina, analisi estatistikoan hiztuna ausazko efektutzat hartu denez, hiztun guztiek dute pisu bera batez besteko estimazioa kalkulatzeko. Hori dela eta, kasu honetan bezala, baliteke bi neurri horiek kontrako joera erakustea.

4.1.3 Ikastetxearen arabera




5. irudia. *Zara eta gara* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak ikastetxearen arabera.

La Sallekoen batez bestekoa % 45ekoa da [% 10,48, % 85,11], Sainte Marien ikasiena, % 53,67koa [% 14,53, % 88,75] eta Txingudikoena, % 31,38koa [% 6,52, % 74,98].

Kasu honetan antzeko joerak erakusten dituzte batez bestekoek eta estimazioek, nahiz eta La Salle eta Sainte Marie ikastetxeko ikasleen batez bestekoak estimazioak baino altuxeagoak izan. Kasu honetan ere, bai batez bestekoak eta bai konfiantza-tarteak elkarren oso antzekoak dira. Txingudi ikastolakoek dute Irungo euskarako eta euskara batuko *-a-* aldaera erabiltzeko aukerarik txikiena.

Ikastetxearen arabera aldea handiagoak dira *zera/gera* eta *zara/gara* formak erabiltzeari dagokionez. Uste ez bezala, Txingudi Ikastolan ikasitako hiztunek erabiltzen dituzte *zara* eta *gara* formak ehuneko txikienean. Horrek, iradokitzen digu kasu honetan erdialdeko euskararekiko eragina ez dukeela euskararekiko harreman faltak baldintzatzen, baizik eta kontrakoak, erabilera handiagoak, hain zuzen. Irungo gazte euskaldunek euskara gehien mendebaldeko giputzeekin hitz egiten dutenez, arrazoizkoa dirudi pentsatzeak mendebaldeko berrikuntza horiek beraien artean hedatuko direla lehenik; hau da, Txingudi Ikastolan ikasi dutenengan, kasu honetan.

4.1.4 Generoaren arabera




6. irudia. *Zara eta gara* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak generoaren arabera.

Mutilen batez besteko estimazioa %47,96koa da [% 16,26, % 81,39] eta neskena, % 38,33koa [% 11,45, % 74,93].

Generoaren arabera, estimazioen artean alde handiagoa dago batez bestekoen artean baino. Aldea txikia da batez besteko probabilitateari dagokionez, eta konfiantza-tarteak ere berdintsuak dira. Gainera, bi taldeek probabilitate espazio antzekoa okupatzen dute eta bata bestearen batez bestekoa barne hartzen du, datu kopuru txikiak eta hiztunen arteko heterogeneotasunak eraginda. Dena den, gure hipotesiarekin bat, emakumezkoak berritzaileago dira. Eraitza horiek ez datoz bat Haddicanek (2005) aurkitutakoekin, izan ere, Oartzunen, gazteetatik aparte helduak eta adintsuak ere kontuan hartuta, gizonezkoek erabili zuten *-e-* aldaera gehien.

4.1.5 Absolutiboko pertsonaren arabera



7. irudia. *Zara eta gara* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak absolutiboko pertsonaren arabera.

Zu-ri dagokion batez bestekoa % 40,76koa da [% 17,23, % 69,46] eta *gu*-ri dago-kiona, berriz, % 45,48koa [% 20,87, % 72,43].

Kasu honetan ere batez bestekoek eta estimazioek kontrako joerak erakusten dituzte: bigarren pertsona singularraren batez bestekoa lehen pertsona pluralarena baino altu-xeagoa da; ez, ordea, batez besteko estimazioa. Dena den, emaitzek ez dute alde nabar-menik erakusten, bi formak maila antzekoan ageri baitira. Batez besteko estimazioek erakutsitakoaren harira, datuak bat datoz Haddicanek (2005) Oiartzunen aurkituta-koekin; hau da, *-e*- erroa ohikoagoa dela lehenengo pertsonan bigarrenean baino.

4.2 Izan-en absolutiboko 3. pertsona singularrean -e- edo -a-


4.2.1 Modelo estatistikoa

3. taula. *Izan-en* absolutiboko 3. pertsona singularrean -e- edo -a- erabiltzeari dagokion modelo estatistikoa

Predictors	Odds Ratios	CI	p
(Intercept)	2006.67	5.71-704820.76	0.011
Transmisioa [Etxea]	0.56	0.01-35.98	0.784
Ikastetxea [Sainte Marie]	0.04	0.00-9.69	0.253
Ikastetxea [Txingudi]	0.93	0.00-202.12	0.980
Generoa [Neska]	0.07	0.00-4.39	0.205
Denbora [Lehenaldia]	0.39	0.18-0.84	0.016
Random Effects			
σ^2	3.29		
$\tau_{00 \text{ tier}}$	9.45		
ICC	0.74		
N_{tier}	12		
Observations	355		
Marginal R ² / Conditional R ²	0.263 / 0.810		

Estatistikoki adierazgarria den alde bakarra *intercept*aren eta lehenaldiaren artekoa da.

4.2.2 Transmisioaren arabera




8. irudia. *Den eta zen* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak transmisioaren arabera.

Eskolan ikasien batez bestekoa % 99,10koa da [% 70,84, % 99,98] eta etxean ikasiena, % 98,41koa [% 66,20, 99,95].

Bai eskolan, bai etxean euskara jaso dutenek nagusiki *-e-* erroko formak erabiltzen dituzte, eta ez da alde handirik antzematen bi multzoen artean. Etxean euskara jaso duten hiztunek, hala ere, *-a-* erroko aditzak erabiltzeko joera handixeagoa dute. Horrek erakusten du, beste behin, gure hipotesien aurka, balitekeela etxeko euskaldunek, eskolako hiztun berriekin konparatuta, erdialdeko aldaeren alde egitea. Berrikusle anonimo batek zehaztu bezala, litekeena da *dan* eta *zan* Irungo guraso euskaldunengan presente egotea eta aldaera horiek beren seme-alabei transmititu izana.

4.2.3 Ikastetxearen arabera




9. irudia. *Den eta zen* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak ikastetxearen arabera.

La Salle eskolan ikasien batez bestekoa % 99,59koa da [% 68,09, % 100], Sainte Marien ikasiena, % 91,08koa [% 27,60, % 99,63] eta Txingudikoen, % 99,56koa [% 65,56, % 100].

La Sallen ikasitako hiztunei dagokienez, *den* eta *zen* formek oso ehuneko altua izan dute; ondoren heldu da Txingudi ikastola, eta, azkenik, Sainte Marie. La Sallek eta Txingudik oso talde antzekoak osatzen dituzte. Alabaina, aldea txikia bada ere, Sainte Marikoek *den* eta *zen* erabiltzeko aukera txikiagoa dute eta beheko konfiantza-tartea ere baxuagoa da. Kasu honetan, gure hipotesiarekin bat, izaera euskaldunena duen Txingudi Ikastolan ikasiek Irungo euskarako eta euskara batuko formei

neurri handian eutsi diete, baina hain izaera euskaldunik ez duen La Salle ikastetxe-koekin batera. Sainte Marieko probabilitate baxuagoa azal lezake ikastetxe horretako hiztunek Hegoaldekotzat duten euskararen ezaugarriak (*dan* eta *zan*) erabiltzeko nahiak, Irungo Hegoaldeko nortasuna indartzeko, Iparraldekoaren aurrean.

4.2.4 Generoaren arabera




10. irudia. *Den* eta *zen* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak generoaren arabera.

Mutilen batez bestekoa % 99,69koa da [% 86,53, % 99,99] eta neskena, berriz, % 95,54koa [% 42,64, % 99,84].

Ezaugarri honen kasuan ere hasierako hipotesia egiaztatzen dela dirudi, izan ere, neskek mutilek baino joera handixeagoa dute erdialdeko euskaratik heldu diren forma berriak erabiltzeko, bai batez bestekoei dagokienez, bai estimazioei dagokienez: batez bestekoen arteko aldea handiagoa da, baina estimazioei erreparatuz, bai mutilek eta bai neskek *-e*-dun aldaerak erabiltzeko batez besteko ia % 100eko probabilitatea dute, nahiz eta neskena zertxobait apalagoa izan eta konfiantza-tarteak, askoz handiagoak.

4.2.5 Denboraren arabera



11. irudia. *Den eta zen* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak denboraren arabera.

Orainaldiaren batez bestekoa % 99,25koa da [% 86,63, % 99,96] eta lehenaldia-rena, % 98,11koa [% 71,99, % 99,90].

Den eta zen erako formak erabiltzeko probabilitatea oso handia da bai orainaldian eta bai iraganaldian, baina erdialdeko formak ohikoagoak dira iraganaldian, maiztasun txikieneko denboran, hain zuzen ere. Hori bat dator Sims-Williamsek (2022) dioenarekin, hain zuzen ere, aldaketa morfologikoa maizago gertatzen dela maiztasun txikiko egituretan. Dena den, batez bestekoen arteko aldea estimazioen artekoa baino handiagoa da.

4.3 -e- edo -u- erroa *edun aditzetan


4.3.1 Modelo estatistikoa

4. taula. Edun aditzean -e- edo -u- erroak erabiltzeari dagokion analisi estatistikoa

Predictors	Odds Ratios	CI	p
(Intercept)	0.38	0.06-2.55	0.321
Transmisioa [Etxea]	2.76	0.50-15.20	0.243
Ikastetxea [Sainte Marie]	2.07	0.26-16.73	0.493
Ikastetxea [Txingudi]	3.42	0.43-27.38	0.248
Generoa [Neska]	2.78	0.50-15.34	0.242
Ergatiboko pertsona edun [Zuk]	1.38	0.84-2.26	0.209
Ergatiboko pertsona edun [Guk]	2.51	1.31-4.80	0.006
Random Effects			
σ^2	3.29		
$\tau_{00\ tier}$	2.09		
ICC	0.39		
N_{tier}	12		
Observations	699		
Marginal R ² / Conditional R ²	0.139 / 0.473		

Estatistikoki esanguratsu den alde bakarra *intercept*aren eta lehen pertsona plurala-
ren artekoa da.

4.3.2 Transmisioaren arabera




12. irudia. *Edun aditzean dut erako formak erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak transmisioaren arabera⁴.

4 Y ardatzean «dut erako aditzak» jarri dugu lekua irabazte aldera eta argitasuna ziurtatzeko, nahiz eta -u-
erroko *edun saileko formez ari garen.

Eskolan ikasien batez bestekoa % 64,86koa da [% 35,11, % 86,29] eta etxean ikasiena, berriz, % 83,60koa [% 60,15, % 94,51].

Kasu honetan, hasierako hipotesia, neurri batean, bete da. Izan ere, eskolan euskara ikasitako hiztunek *-u-* aldaera gutxiagotan erabili dute etxean ikasi dutenek baino, baina aldeak ez dira handiak. Batez besteko estimazioak batez besteko gordinak baino altuagoak dira, eta etxean ikasiek probabilitate-espazio hertsia goa hartzen dute. Dena den, kasu honetan ere, talde batek besteen batez bestekoa barne hartzen du: bi taldeetan da *-u-* nagusi, baina datuek adierazten digute ez dela harrigarria Irungo gazteen artean *-e-* entzutea.

4.3.3 Ikastetxearen arabera




13. irudia. *Edun aditzean *dut* erako aditzak erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak ikastetxearen arabera.

La Sallen ikasi dutenen batez bestekoa % 61,5koa da [% 26,82, % 87,44], Sainte Marien ikasiena, % 76,81koa [% 42,4, % 93,71] eta Txingudikoena, % 84,51koa [% 54,99, % 96,05].

Batez besteko estimazioen artean alde handiagoa dago batez besteko gordinen artean baino. Kasu honetan ere hasierako hipotesia betetzen da: La Sallen erabiltzen da *-u-* gutxien eta *-e-* gehien; ondoren, Sainte Marien; eta, azkenik, Txingudin. Konfiantza-tarteak ere geroz eta estuagoak dira talde batetik bestera. Dena den, talde baten konfiantza tarteek besteen batez bestekoak barne hartzen dituzte. Badirudi, beraz, ikastetxean euskararen presentzia handiagoa izateak, kasu honetan, Irungo euskarako eta euskara batuko formei eusten lagundu duela.

4.3.4 Generoaren arabera




14. irudia. *Edun aditzean dut erako formak erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak generoaren arabera.

Mutilen batez bestekoa % 64,81ekoa da [% 35,73, % 85,92], eta neskena, berriz, % 83,63koa da [% 59,45, % 94,68].

Kasu honetan ere kontrako joera erakusten dute batez besteko gordinek eta estima-
zioek: mutilek erabili dute, batez beste, -u- gehien, baina probabilitate txikiagoa dute
horretarako, seguraski, hiztun bakoitzaren token kopuruak eraginda. Gainera, pro-
babilitate espazio handiagoa okupatzen dute eta nesken batez bestekoa barne hartzen
dute. Estimazioek, batez besteko gordinek ez bezala, espero genuenaren kontrako joera
erakusten dute, eta horrenbestez, hipotesia ez dela betetzen ondoriozta daiteke. Izan
ere, neskek mutilek baino probabilitate handiagoa dute Irungo euskarako eta euskara
batuko *dut* erako formak erabiltzeko. Hori bat heldu da Haddicanek (2003) Oiartzu-
nen aurkitutako datuekin.

4.3.5 Ergatiboko pertsonaren arabera



15. irudia. *Edun aditzean *dut* erako formak erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak ergatiboko pertsonaren arabera.


Lehen pertsona singularraren batez bestekoa % 67koa da [% 46,18, % 82,77], bigarren pertsona singulararena, % 73,63koa [% 51,99, % 87,81] eta lehen pertsona pluralarena, % 83,58koa [% 64,43, % 93,47].

Ergatiboko pertsonak ere badu lotura aldaera bat edo bestea erabiltzearekin. Lehen pertsona pluralak du *-u-* erroa erabiltzeko aukerarik handiena. Ondoren heldu da bigarren pertsona singularra, eta, azkenik, lehen pertsona singularra. Talde bakoitzak okupatzen duen probabilitate-espazioa ere ordena horretan handitzen da; dena den, batak besteen media barne hartzen du. Batez besteko gordinak estimazioak baino zertxobait apalagoak dira. Haddicanek (2003) Oiartzunen aurkitutako datuekin bat heldu dira gureak ere.

4.4 *Deus* vs *ezer*

Ezin izan dugu *deus* eta *ezer*-en arteko analisi estatistikoa egin modeloak ematen dizkigun singularitate arazoak direla eta. Hori dela eta, batez besteko gordinak eta hiztun bakoitzaren batez bestekoak baino ez ditugu erakutsi.


4.4.1 Transmisioaren arabera



16. irudia. *Deus* aldaera erabiltzearen batez besteko gordinak eta hiztun bakoitzaren batez bestekoak transmisioaren arabera.

Kasu honetan ere hipotesia betetzen da, etxean euskara ikasiek eskolan ikasiek baino hobeki eutsi diotelako Irungo euskarako eta batuko formari. Dena den, datu gutxi daukagu ondorio sendorik atera ahal izateko: hain zuzen ere, eskolan ikasiek behin bakarrik erabili dute *deus* eta etxeen ikasiek, bost aldiz.


4.4.2 Ikastetxearen arabera



17. irudia. *Deus* aldaera erabiltzearen batez besteko gordinak eta hiztun bakoitzaren batez bestekoak ikastetxearen arabera.

Adibide kopuru txikia dugu ondorio fidagarririk atera ahal izateko. Hain zuzen ere, behin bakarrik erabili da *deus* Txingudi Ikastolan; bi aldiz, La Sallen; eta hiru aldiz, Sainte Marien. Batez besteko altuena, aurreikusi bezala, Txingudi Ikastolak du, ondoren heldu da Sainte Marie, eta, azkenik, La Salle. Aurreikusi bezala, izaera euskaldunena duen Txingudi eskolan ikasiek eutsi diote Irungo euskarako formari gehien, baina hurbil dago Sainte Marie. Horrek esan nahiko luke, beharbada, nafar-lapurterak balukeela eraginik *deus* aldaerari gehixeago eustean. Dena den, datuek adierazten dute Irungo gazte gehienek *ezer* dutela beren eguneroko euskarako hitztat.

4.4.3 Generoaren arabera



18. irudia. *Deus* aldaera erabiltzearen batez besteko gordinak eta hiztun bakoitzaren batez bestekoak generoaren arabera.

Datu hauek erakusten dute neskek mutilek baino joera handiagoa dutela forma berria erabiltzeko. Dena den, aldea oso txikia da eta bi generoetan nahiko presentzia apala du *deusek*. Horrek erdialdeko euskararen presentzia handia erakusten du.

4.5 *Aski* vs *nahiko*

Hizkuntza-ezaugarri honi dagokionez ez dago aldakortasunik, talde-sozial guztiek erabili dute beti *nahiko*; 55 aldiz, hain zuzen ere. Hori dela eta, ez dugu grafikorik erakutsiko, gehiegi ez luzatze aldera. Beste behin, aldagai lexiko honi dagokionez ere, erdialdeko euskararen eragina aipagarria da, erabatekoa baita. Irungo eta ekialdeko *aski*, beraz, esan liteke ia desagertuta dagoela. Litekeena da *aski* hitza gazteentzat arrotza edo markatuegia izatea, eta agian Euskal Herriko iparraldeko edo Nafarroako hizkerarekin lotzea. Arrazoi horrengatik, forma hori bazterturik geratu dela pentsa daiteke, elkarrizketatutako hiztunek *nahiko* forma bertakotzat eta neutroagotzat har dezaketelako. Dena den, hizkuntza-ideologiei buruzko ikerketa sakonagoa behar litza-teke hipotesi hori baieztatzeko.

Ez dugu *aski* eta *nahiko* hitzen erabileraren inguruko analisi estatistikorik egin, ez baitago aldakortasunik; hau da, erabat erabiltzen baita *nahiko*.

4.6 Eduki vs *edun


4.6.1 Modelo estatistikoa

5. taula. Jabetza adierazteko *eduki* (*daukat*) edo **edun* (*dut*) aditzak erabiltzeari dagokion analisi estatistikoa

Predictors	Odds Ratios	CI	p
(Intercept)	0.01	0.00-0.06	<0.001
Transmisioa [Etxea]	2.89	0.87-9.58	0.082
Ikastetxea [Txingudi]	8.32	2.31-29.90	0.001
Generoa [Neska]	1.27	0.34-4.74	0.718
Numeroa edun eduki [Plurala]	10.47	2.98-36.77	<0.001
Denbora edun eduki [Lehenaldia]	0.99	0.20-4.83	0.986
Random Effects			
σ^2	3.29		
$\tau_{00\text{ tier}}$	0.00		
ICC	0.00		
N_{tier}	8		
Observations	154		
Marginal R ² / Conditional R ²	0.400 / 0.400		

Sainte Marie ikastetxea modelotik kanpo utzi dugu, aldakortasunik ez duelako; hau da, beti erabili dituzte *edukiren* gainean eraikitako formak; hori dela eta, modeloak arazoak ematen ditu. *Intercept*aren eta pluralaren arteko aldea estatistikoki esanguratsua da, baita *intercept*aren eta Txingudi Ikastolaren artekoa ere. Ergatiboko pertsona ez dugu modeloan txertatu ahal izan, singularitate arazoak ematen baitizikigu.

4.6.2 Transmisioaren arabera




19. irudia. **Edun* (*dut*) erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak transmisioaren arabera.

Eskolan ikasien batez bestekoa % 14,43koa da [% 2,79, % 49,74] eta etxean ikasiena, berriz, % 34,72koa [% 10,65, % 70,35].

Euskara etxean ikasi dutenek eskolan ikasiek baino hobeki eutsi diete Irunen eta Euskal Herriko ekialdean nagusi diren **edun* aditzaren gainean eraikitako formei. Kasu honetan, batez besteko estimazioak batez besteko gordinak baino altuxeagoak dira. Etxekoan beheko konfiantza-tartea ez da heltzen eskolakoan batez bestekora, baina eskolakoan goiko tartea etxekoan batez bestekoa gainditzen du doi-doi. Beste behin, euskararekiko harreman handiagoa izateak Irungo euskarako formen alde egitea eragin du.

4.6.3 Ikastetxearen arabera




20. irudia. **Edun (dut)* erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak ikastetxearen arabera.

La Sallen ikasi dutenen batez bestekoa % 8,01 da [% 1,49, % 33,3] eta Txingudin ikasienena, % 50,75 [% 17,45, % 83,40].

Espero genuen bezala, Txingudi Ikastolan gehiago eutsi diete **edun* aditzaren gainean eraikitako formei beste bi ikastetxeetan baino, euskararen presentzia nabarmenagoa baita. Alabaina, Sainte Marien ez dugu **edun* aditzaren gainean eraikitako ale bakar bat ere bildu ahal izan. Harrigarri zaigu, nafar-lapurteraz ohikoak baitira. Beharbada, «gipuzkoartasuna» edota «Hegoaldeko izatea» azpimarratzeko saiakeratzat uler liteke *eduki*-ren alde egin izana. La Sallekoan eta Txingudi ikastolakoan arteko aldea adierazgarria da, bi taldeak aski bereizita baitaude bata bestearengandik.

4.6.4 Generoaren arabera




21. irudia. **Edun* (*dut*) erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak generoaren arabera.

Mutilen batez bestekoa %21,99koa da [% 5,6, % 57,26] eta neskena, berriz, % 24,14koa da [% 5,42, % 63,84].

Neskek Irungo (eta ekialde zabaleko) **edun* aditzaren gainean eraikitako formak erabiltzeko batez besteko gordin altuagoa dute gizonen baino. Hala ere, aldea oso txikia da estimazioei dagokienez. *Eduki* aditzeko jabegoa adierazteko formak erabat nagusitu dira **edun* aditzekoaren aurrean, Irungo gazteen artean. Aditz-morfologiari dagozkion beste aldagai batzuetan bezalaxe, honetan ere neskak gordetzaileago ditugu, baina mutilengandik baino datu gutxiago bildu ahal izan ditugu berengandik; beraz, aldea txikia izateaz gain, tentuz hartu beharrekoa da.

4.6.5 Numeroaren arabera




22. irudia. **Edun* (*dut*) erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak numeroaren arabera.

Singularraren batez bestekoa % 8,34koa da [% 1,77, % 31,46] eta pluralarena, berriz, % 49,63koa [% 15,26, % 84,36].

Aldagai sozialetatik hizkuntza-aldagai askeetara igarota, numeroari dagokionez, pluralean singularrean baino askoz hobeki eutsi zaie **edun* aditzeko formei. Aldeak handiak dira, bai batez besteko gordinei, bai batez besteko estimazioei dagokienez. Lehenbizikoak bigarrenak baino altuxeagoak dira. Bi taldeak elkarrengandik ongi bereizita daude. Dena den, kontuan izan beharra dago pluralean askoz adibide gutxiago bildu dugula, eta, hori dela eta, besteak beste, talde horrek probabilitate-espazio zabala hartzen duela. Kasu honetan aldaketa morfologikoa (*eduki*) maiztasun handiko eta konplexutasun morfologiko txikiko formetan hedatu da lehenik.

4.6.6 Denboraren arabera




23. irudia. **Edun* (*dut*) erabiltzearen batez besteko gordinak, hiztun bakoitzaren batez bestekoak eta aurreikuspenak denboraren arabera.

Orainaldiaren batez bestekoa %21,88koa da [% 6,39, % 53,45] eta lehenaldiarena, berriz, % 24,25koa [% 4,1, % 70,56].

Denboraren arabera oso alde txikia dago hizkuntza-aldagai honi dagokionez, bai batez besteko gordinen artean, bai batez besteko estimazioen artean ere. Dena dela, *eduki* gehiago zabaldu da iraganaldian. Kontuan hartu beharrekoa da, zernahi gisaz, orainaldian iraganaldian baino adibide kopuru handiagoa bildu ahal izan dela. Hori dela eta, iraganaldiak probabilitate-espazio zabalagoa hartzen du.

4.6.7 Ergatiboko pertsonaren arabera



24. irudia. **Edun* (*dut*) erabiltzearen batez besteko gordinak eta hiltun bakoitzaren batez bestekoak ergatiboko pertsonaren arabera.

Adibide kopururik handiena ergatiboa lehen pertsona eta hirugarren pertsona singularra denean bildu da. Hirugarren pertsona plurala denean, ordea, adibide bana baino ez dugu aldaera bakoitzeko. Hori dela eta, datuak tentuz hartu beharra dago. Oro har, aldeak ez dira oso handiak, baina badirudi zenbat eta adibide kopuru handiagoa izan ergatiboko pertsonan, *edukiren* presentzia ere handiagoa dela; maiztasunak badu eraginik, beraz.

5 ONDORIOAK

Lanaren atal honetan, lehenik eta behin, ikerketaren hasieran planteatutako hipotesiak berresten diren ala ez ikusiko dugu.

Lehenik eta behin, esan beharra dago *interceptaren* eta aldaera aske sozialen arteko aldeak, oro har, ez direla estatistikoki esanguratsuak izan, eta aurreikusleen efektuei dagokienez ere, ez dugu ikusi desberdintasun nabarmenik. Gainera, talde zenbaiten konfiantza-tarte zabalek datu kopurua txikia dela iradokitzen dute. Hori dela eta, komenigarria litzateke hitzun gehiagorekin, eta, beraz, datu gehiagorekin ikerketa osatzea zehatzago ikusi ahal izateko ia aldagai sozial aske horiek hizkuntza-aldakortasuna baldintzatzen duten eta ia alde esanguratsurik ez izatea datu faltaren ondorio den. Horixe bera dela eta, ondorioen atal hauetan dakartzagun gogoetak joeratzat baino ez litezke har, ez baieztape sendo eta irmotzat.

Generoaren arabera, alde nabarmenik ez dagoela esan daiteke, izan ere, neskek zein mutilek maila beretsuan erabili dute aldagai bat ala bestea. Desberdintasun nabarmenenak honako ezaugarri hauetan aurkitu dira: **edun* vs *eduki* aditzen gainean eraikitako aditzetan, *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean eta **edun* aditzeko *-e-* vs *-u-* erroetan. Lehenbizikoan eta hirugarrenean neskak gordetzaileagoak dira (nahiz eta hirugarrenean batez besteko gordinei erreparatuz berritzaileago diren), eta, bigarreanean, berritzaileak. Datu horiek islatzen dute ez dagoela homogeneousun generoen arabera. Ondorioz, esan daiteke Irungo gazteen artean generoa ez dela aldagai esanguratsua Irungo gazteengan dagoen erdialdeko euskararen eragina azaltzeko.

Euskararen transmisioari dagokionez, esan liteke hipotesia neurri batean baieztatu dela, nahiz eta konfiantza-tarteak kasurik gehienetan handiak diren, eta ateratako ondorioak ere tentuz hartu beharra dagoen. Esaterako, *dut* erako formak (Irungo euskarakoak eta euskara batukoak) gehiago agertu dira euskararen transmisioa etxetik jaso duten hiztunen artean. Aldiz, *det* bezalako formak euskaraz hitz egiten eskolan ikasi dutenen artean erabili dira gehien. **Edun* aldaerari euskara etxean ikasiek eutsi diote hobekien, era berean. *Deus* vs *ezer*-en ez da analisi estatistikorik egin, baina batez besteko orokorrekin joera bera erakusten dute. *Zera* eta *gera*ren kasuan, batez besteko gordinei dagokienez, etxean ikasiek egin dute *-e-*ren alde, baina aurreikusleen estimazioei dagokienez, hipotesietan zehaztu bezala, baliteke eskolan ikasiak izatea aldaketaren buru. Dena den, aldeak txikiak dira eta konfiantza-tarteak handiak; beraz, joeraz baizik ez gaitezke mintza. Alabaina, erdialdeko euskarako *dan* eta *zan* gehiago erabili dituzte etxean ikasiek, baina kasu horretan ere, eskolan ikasiekiko aldea ez da handia.

Ikastetxeari erreparatuz, Txingudi Ikastolakoak Irungo euskara «tradizionalari» gehiago lotzea espero zen, euskarak eskola horretan duen pisu nabariagoa dela eta. Hala izan da jabegoa adierazteko **edun* aditzari dagokionez. Joera bera erakutsi dute *deus*-ek eta *-u-* aldaera duten **edun* aditzeko formei ere. *Den* eta *zen* erako formetan Irungo euskara «tradizionalari», eta, beraz, euskara batuari lotuta agertu dira, baina La Salle eskolakoekin batera. Haatik, kontrako joera erakutsi dute *izan* aditzaren *-e-* aldaeran, hots, erdialdetik heldu diren *zera* eta *gera* aldeztu dituzte, nahiz eta aurreikusleen efektuetan batez besteko gordinetan baino alde askoz txikiagoa egon.

La Sallen ikasitako ikasleen artean erdialdeko euskararen eragin handiagoa izatea espero zen. Jasotako datuetan, oro har, joera horren aldeko zantzuak ageri dira: La Salleko ikasleen artean *det* eta *ezer* bezalako formek presentzia handiagoa dute. Lehen kasuan ez, baina bigarreanean Sainte Marierekiko aldea txikia da. *Eduki*-ren gainean eraikitako formetan, Sainte Mariekoak izan dira berritzaileen, baina La Sallekoak ez dira horiengandik urrun ibili. Alabaina, *izan* aditzaren absolutiboko 3. pertsona singularrean La Sallekoek eutsi diete ongien *den* eta *zen* formei, baina beste bi ikastetxeekiko aldea oso txikia da.

Aipagarria da Donibane Lohizuneko Sainte Marie ikastetxeko ikasleen kasua, izan ere, testuinguru soziolinguistikoko oso ezberdina bizi izan dute Irunen ikasitakoekin alderatuta: frantsesa da hizkuntza nagusia eta euskarak presentzia txikia du. Gainera, Iparraldeko batuak edota nafar-lapurterak presentzia handiagoa dute han. Hori

dela eta, baliteke Irunen ikasitakoengandik hizkuntza-joera desberdinak izatea. Bertako gazteek bi patroi erakutsi dituzte: *zaralgara* edota *deus* bezalako formak gehien erabili dituzte, baina beste batzuetan, aldiz, erdialdeko euskaratik datozen formak gehien erabili dituzte (*dan* eta *zan* edota *edukiren* gainean eraikitako formak). Zaila da nafar-lapurteraren edota iparraldeko batuaren eragina baieztatzea; izan ere, *zaralgara*-ri dagokienez, Iparraldeko batuan azkenaldian ekialdeko *zira* eta *gira* (EHHako 1276. eta 1277. mapak) nagusitzen ari direlakoan gaude, eta oso hiztun gazte gutxi eusten diete lapurterako *zeri* eta *geri* (<*zarelgare*> edota *zari* eta *gari* (<*zarelgare*? edo *zaralgara*?); beraz, ez dugu uste euskal barietate horiek *-a*-dun formei eusten lagundu dutenik. *Deusen* kasuan, berriz, datu gutxiegi eta beste ikas-tetxeekiko alde txikiegia dago hori frogatzeko. Bestalde, baliteke Gipuzkoako edo Hegoaldeko izaera azpimarratzeko ahalegina egotea erdialdeko formen alde egitearen atzean; hau da, Irun Hegoaldean eta Gipuzkoan dagoenez, baliteke *dan* eta *zan*, eta *eduki*-ren gainean eraikitako formak, Gipuzkoako euskararen ezaugarri adierazgarri edo *salientak* izatea, eta horiek erabiltzen saiatzea. Aldeak, ordea, txikiak dira ondorio sendoak atera ahal izateko. Garaziri dagokionez ere, Erdialdeko euskarako hainbat aldaera Luzaidera heldu zirela ikusi zen, besteak beste, *nun* eta *zenun* erako aditzak (Artzelus, 2020b, 2021). Gainera, mugatik iparraldeko garaztarrek Luzaideko gazte baten solasa Hegoaldekotzat hautematen zuten, hein batean, eta zenbaitek irriz hartzen zuten (Artzelus, 2021, 2022b). Horrek frogatzen du badela «Hegoaldeko euskara» bat mugatik iparraldekoen gogoetan, eta badituzkeela *salient* edo adierazgarri diren ezaugarri zenbait; horien inguruko azterketa zehatzak falta zaizkigu, hala ere.

Azkenik, hizkuntza-aldagai askeei dagokienez, ikusi dugu ergatiboko lehen pertsona singularrak aldeztu duela *-e*- erroa gehienik **edun* aditzaren formetan, bigarren pertsona singularrekin eta lehen pertsona pluralarekin konparatuz. Jabegoa adierazteko **edun* eta *eduki* aditzen kasuan, berriz, ergatiboko hirugarren pertsona singularrak aldeztu du erdialdeko euskararen *eduki* aldaera. Denborari dagokionez, *interceptaren* eta lehenaldiaren arteko aldea *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean *-e*- edo *-a*- erabiltzean izan da estatistikoki esanguratsu; hain zuzen ere, lehenaldian erabili da erdialdeko *-a*- aldaera gehien. Azkenik, numeroa jabegoa adierazteko aditzetan baino ez da aztertu eta *interceptaren* eta pluralaren arteko aldea esanguratsua izan da estatistikoki: singularrean erabili da *eduki* gehien. Ez liteke, beraz, konplexutasun morfologikoaren edota maiztasunaren araberrako ondorio sendorik atera.

Erdialdeko euskararen presentziarik nabarmenena lexikoan dagoela ondoriozta dezakegu, baita *eduki* aditzaren formetan ere. Dena den, etorkizunera begira, interesgarria litzateke aurreko belaunaldiekiko konparaketa egitea, ikusteko ia gazteen belaunaldian sartu diren berrikuntza horiek indartsu edota adintsuenen artean ere jada ohikoak ziren. *Izan* aditzari dagokionez, neurri beretsuan erabili dituzte informatzaileek *-e*- eta *-a*- erroak. Kasu horretan badakigu Sagarzazuri (2005, 74. or.) esker, *-e*-dunak ere adintsuen ahotan maiz erabiltzen direla, baina gazteek oraindik ere *-a*-dunak franko erabiltzen dituzte; beharbada euskara batuak horretan izan duke zerikusirik. *izan*-en absolutiboko 3. pertsona singularrean eta **edun* aditzetan erdialdeko euskarak ez du hain presentzia handirik izan: % 50 baino gutxiagotan erabili dituzte erdialdetik hedatzen ari diren formak; beraz, eragina ez da oso handia izan.

Nahiz eta badakigun hizkuntza-ideologiaren inguruan ikertzeko metodologia zorrotza goa erabili beharko genukeela, elkarrizketa erdi-gidatuaren bukaeran aztergai ditugun hizkuntza-ezaugarriak buruzko galderak egin dizkiegu hiztunei jakiteko ia horien inguruko iritzirik baduten edota konnotazio jakin batzuk atxikitzen dizkieten⁵. Askotan, Irungo gazteek hizkera informala «Gipuzkoako» euskararekin edo Irundik mendebaldeko Gipuzkoako gazteek erabiltzen dituzten hizkuntza-ezaugarriekin lotzen dutela koan gaude, eta horrek eragina izan dezake erdialdeko euskara zabaltzearekin Irunen. Adibidez, elkarrizketatutako neska batek (La Sallen ikasitakoak eta euskara eskolan ikasitakoak) aitortu du Donostiara joan zela ikastera, eta han hasi zela lehen aldiz lagunartean euskaraz hitz egiten. Bere esanetan, unibertsitatean egindako lagunak bere euskara aberasteko aukera eman zioten, erregistro informalean hitz egiteko gaitasuna eskuratu baitzuen. Prozesu horrekin batera hainbat hizkuntza-ezaugarri bereganatu zituela esan du, hala nola, *det*:

Nere bueno nik unibertsitaterea iritxi baino len ba euskara batua itz egite nuen batu-batua bai bai bai eta nik uste ba ori Gipuzkoako erri txikiko jendearekin egon eta gero ba nere euskera aldatu in dala [...] ba bitu ni leno *dut* ta ola erabiltzen nitun baina orain bai itzak pixkat motzagoak biurtzen ditut baino nik uste ori izan dala ba ori jendeareki bueno unibertsitateko jendearekin egon eta gero.

Sainte Marien ikasi eta euskara eskolan ikasi duen mutil batek, berriz, adierazi du Hegoaldeko hiztunekin aritzeko bere hizkera egokitzeko beharra sentitu zuela, eta horregatik bere ustez Hegoaldekoak diren hizkuntza ezaugarriak erabiltzen hasi zela:

Gainera asi nintzen Iparraldeko jendiakin ta Iparraldeko bueno euskalkia ez baino azentoarekin *erreak* egiten nituen *e[ʎ]e* ta ola ta neretzat zen normala zen azkenian frantsesa asi nintzen ikasten ta euskera baita biak gutxi gorabera azentu berarekin itz egiten ziren ta era como normala azkenian joe ta beti gogoratuko naiz leen aldia Egoaldeko norbaitekin itz egin nula euskeraz ta izan zen uste et *como el mas txok* izan zen udaleku batzutan iritxi nintzen nire euskerarekin ta: *kaixo ni oie[ʎ] naiz zo[ʎ]tzi u[ʎ]te* ditut. Jende guztia asi zen nitaz farre egiten izan zen *como ze?* ta ba asi nintzen ba ya or konturatu nintzen ya ba igual nire euskera etzan normala *entre comillas* ta asi nintzen hori aldatzen saiatzen nintzen *erreak* egiten ta ez *e[ʎ]eak*.

Dena den, esan beharra dago, beste kasu batzuetan hiztunek aitortu dutela ez direla kontziente erabiltzen dituzten hizkuntza-ezaugarriez eta ez dietela konnotazio jakinik atxikitzen.

Datuek iradokitzen dute hiztunak sozializatu diren inguruak beren hizkera baldintzatzen dukeela, besteak beste, ikastetxearen eta transmisioaren araberako aldeek, nahiz eta txikiak diren. Beste etsenplu bat Sainte Marien ikasitako eta euskara etxean ikasitako mutil batek erabilitako *ukan det* dugu. Argi dago *ukan* aditza erabiltzea

⁵ Bukaeran galdetzearen arrazoia izan da hizkuntza-ezaugarriak buruzko galdera horiek beren jardun espontaneoan eraginik ez izatea; hots, hiztunek beren solasa ez monitorizatzea.

Iparraldean ikasi izanari zor zaiola, baina, bestalde, erdialdeko euskararen ezaugarri bereizgarri den *det* ere erabili du. Hori zalantzarik gabe, sozializazio-sare konplexu baten adierazgarri da; hain zuzen ere, ikasketak egin dituen Donibane Lohizuneko nafar-lapurterak edo Iparraldeko batuak badu eraginik, baina baita Irundik mendebaldera dagoen Gipuzkoak ere.

Bukatzeko, lan honen mugak eta etorkizuneko ikerbide posibleak zehaztu nahiko genituzke. Komeni da, alde batetik, aldagai aske guztien konbinazio bakoitzeko hitzun gehiago elkarriketatzea, emaitzak fidagarriagoak izan daitezen. Oso interesgarria da, bestalde, beste belaunaldi batzuetako hitzunak ere kontuan hartzea, hizkuntza-ezaugarri hauen bilakaeraren berri zehatzagoa izan dezagun. Hizkuntza-ideologien ildotik ere, interesgarria litzateke *matched guise* erako probak egitea hitzunek inkontzientean dituzten erdialdeko euskararen inguruko usteak zein diren jakiteko. Dena den, balio beza iker-lan honek hain kokapen eta izaera interesgarria duen Irun bezalako inguru bateko gazteen euskararen argazki bat izateko.

6 ERREFERENTZIAK

- Amorrortu, E. (2000). *Linguistic attitudes in the Basque Country: The social acceptance of a new variety*. UMI: University of Southern California.
- Artzelus, A. (2020a). Garaziko euskararen azterketa diafasikoa. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpen berriak euskararen ikerketari* (63.-80. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.4>
- Artzelus, A. (2020b). Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre* (89.-114. or.). EHU.
- Artzelus, A. (2021). Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna. [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/51354>
- Artzelus, A. (2022a). Generoa Garaziko hizkuntza-aldakortasunaren baitan. In A. Lizardi, S. Monforte, L. Vela & A. Arriortua (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan* (33.-55. or.). UEU.
- Artzelus, A. (2022b). Muga politikoaren eragin linguistikoa Garazin lekukoen oharmentzen arabera. In D. Krajewska, S. Monforte & E. Zuloaga (arg.), *Aziti-Bihia. Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzaren adarrak* (6.-32. or.). EHU.
- Artzelus, A. (2026). *Pluralgileen aldakortasuna Azpeitiko euskarako tratamendu alokutiboan* [Eskuizkribu argitaragabea]. UPNA/NUP.
- Auer, P. & Hinskens, F. (1996). The convergence and divergence of dialects in Europe. New and not so new developments in an old area. *Sociolinguistica*, 10, 1-30. <https://doi.org/10.1515/9783110245158.1>
- Aurrekoetxea, G. (2006). Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak. *ASJU*, 40(1-2), 133-160. <https://doi.org/10.1387/asju.4378>
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Ormaetxea, J.L. & Videgain, X. (2019). *Euskalkien sailkapen berria*. EHU.

- Azkarate, M. (1992). Euskara estandarra eta hizkuntza-sexismoa. *AEK*, 11-12, 91-98.
- Badihardugu Euskara Elkarte. (2025). *Irun*. www.ahotsak.eus. <https://ahotsak.eus/irun/>
- Bates, D., Maechler, M., Bolker, B. & Walker, S. (2015). Fitting linear mixed-effects models using lme4 [R paketea]. *Journal of Statistical Software*, 67(1), 1-48. <https://doi.org/10.18637/jss.v067.i01>
- Bereziartua, G. & Muguruza, B. (2019). Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpak berriak euskararen ikerketari* (129.-140. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.8>
- Boersma, P. & Weenink, D. (2020). *Praat: doing phonetics by computer, Version 5.1*. [Programa informatikoa]. <http://www.praat.org>
- Bonaparte, L.L. (1863). *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*. Stanford's Geographical Establishment.
- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar.
- Chambers, J.K. & Trudgill, P. (1998). *Dialectology*. Cambridge University Press. (Jatorrizko obra 1980an argitaratua)
- D'Onofrio, A., & Benheim, J. (2019). Contextualizing reversal: Local dynamics of the Northern Cities Shift in a Chicago community. *Journal of Sociolinguistics*, 24(4), 469-491. <https://doi.org/10.1111/josl.12398>
- Duncan, D. (2021). Secondary education as a group marker in St. Louis, Missouri. *Language in Society*, 50(5), 667-694. <https://doi.org/10.1017/S0047404520000378>
- Echeverria, B. (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 7(3), 339-363. <https://doi.org/10.1111/1469-8219.00020>
- Eckert, P. (1989). The whole woman: Sex and gender differences in variation. *Language Variation and Change*, 1(3), 245-267. https://doi.org/10.1007/978-1-349-25582-5_18
- Eckert, P. & McConnell-Ginet, S. (1992). Think practically and look locally: Language and gender as community-based practice. *Annual Review of Anthropology*, 21, 461-490. <https://doi.org/10.1146/annurev.an.21.100192.002333>
- Eguskiza, N. (2019). Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian [Doktorre-tesia, EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/33204>
- Ensunza, A. (2012). Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait. *ASJU*, 46(2), 177-244. <https://doi.org/10.1387/asju.13452>
- Ensunza, A. (2015). Busturialdeko euskararen aldakortasuna denboran eta espazioan [Doktorre-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/16701>
- Etchebest, X. (2017). Zuberotar Dardarkarien Bariazio Sozio-Fonetikoa [Doktorre-tesia, Paue eta Aturrialdeko Unibertsitatea & EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/24870>
- Euskaltzaindia. (2008-2019). *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa [EHHA]* (10 liburuki). Euskaltzaindia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. (2021). *Euskararen Adierazle Sistema*. <https://www.euskadi.eus/web01-apeusadi/eu/eusadierazle/graficosV1.apl?idioma=e&indicador=159>
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. (2023). VII. *Inkesta soziolinguistikoa*

- (EAE). https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf
- Franco-Landa, E. (2025). Variation in nominal ergative marking and its social meaning: A linguistic and ideological comparative study between the US Basque Diaspora and the Basque Country [Doktore-tesia, University of Miami]. <https://scholarship.miami.edu/esploro/outputs/991032728632702976>
- Gaindegia. (2019). *Euskal Herria eskualdeka. Argazki sozioekonomikoa 2019*. <https://www.gaindegia.eus/index.php/es/eskualdeak?language=eu>
- Gaminde, I., Romero, A. & Legarra, H. (2012). *Gramatika eta hizkuntza bariazioa Bermeon*. Bermeoko Udala.
- Garcia-Palomino, A. (2021ko uztailaren 2a). *Euskararen aldakortasunaren eragile sozialez Teoria soziolinguistikoaren barruan* [Kongresuko aurkezpena]. Hizkuntzalari euskaldunen V. topaketa: kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan. Eibar.
- Garcia-Palomino, A. (2021). Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz jarrerren garrantziaz. *FLV*, 131, 113-145. <https://doi.org/10.35462/flv131.5>
- Garcia-Palomino, A. (2022). Hizkuntz aldakortasunaren eragile sozialak: Euskal bariazionismoan dakigunetik ez dakigunera. In A. Lizardi, S. Monforte, L. Vela & A. Arriortua (arg.), *Kimu berriak euskal hizkuntzalaritzan* (57.-86. or.). UEU.
- Garcia-Palomino, A. (2023). Itxurazko egonkortasun linguistikoa eta hazkunde indexikala Bermeoko (lako) aldagaian. *FLV*, 135, 11-52. <https://doi.org/10.35462/flv135.2>
- Gondra, A., Rodríguez-Ordóñez, I. & Franco-Landa, E. (2024). Variation in the production of Basque ergativity: Change or stable variation? *Language Variation and Change*, 36, 95-120. <https://doi.org/10.1017/S0954394524000048>
- Haddican, B. (2003). Dialect contact in a Southern Basque town. *Language and Variation and Change*, 15(1), 1-35. <https://doi.org/10.1017/S0954394503151010>
- Haddican, W.F. (2005). *Aspects of language variation and change in contemporary Basque* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. New York University.
- Haddican, B. (2007). Suburbanization and language change in Basque. *Language in Society*, 36, 677-706. <https://doi.org/10.1017/S0047404507070923>
- Hernández-Campoy, J.M. (1999). *Geolingüística. Modelos de Interpretación Geográfica para Lingüistas*. Murtziako Unibertsitatea.
- Hernández-Campoy, J.M. & Almeida, M. (2005). *Metodología de la investigación sociolingüística*. Comares.
- Hurtado, I. (2001). *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkaoko Udala.
- Ibarra, O. (1994). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernua.
- Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. UPNA/NUP.
- Irizar, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro septentrional (Estudio dialectológico)*. Euskaltzaindia.
- Kasstan, J.R. (2015). *Variation and change in Francoprovençal: A study of an emerging linguistic norm* [Doktore-tesia, University of Kent]. KAR. <https://kar.kent.ac.uk/56637/>

- Kasstan, J.R. (2017). New speakers: Challenges and opportunities for variationist sociolinguistics. *Language and Linguistic Compass*, 11(8), e12249. <https://doi.org/10.1111/lnc3.12249>
- Kintana, X. (1992ko ekainaren 18a). Gaurko euskara batuaren inguruan. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Labov, W. (1990). The intersection of sex and social class in the course of linguistic change. *Language Variation and Change*, 2(2), 205-254. <https://doi.org/10.1017/S0954394500000338>
- Labov, W. (2001). *Principles of language change: External factors*. Blackwell.
- Labov, W., Fisher, S., Gylfadottir, D., Henderson, A. & Sneller, B. (2016). Competing systems in Philadelphia phonology. *Language Variation and Change*, 28, 273-305. <https://doi.org/10.1017/S0954394516000132>
- Lantto, H. (2018). New Basques and code-switching: Purist tendencies, social pressures. In C. Smith-Christmas, N. Ó Murchadha, M. Hornsby & M. Moriarty (arg.), *New speakers of minority languages: Linguistic ideologies and practices* (165.-187. or.). Palgrave MacMillan. https://doi.org/10.1057/978-1-137-57558-6_9
- Lenth, R. & Paiskowski, J. (2025). *Emmeans: Estimated Marginal Means, aka Least-Squares Means*. R package version 2.0.1. <https://rvlenth.github.io/emmeans/>
- Lourido, G.T. (2019). The effects of language dominance switch in bilinguals: Galician new speakers' speech production and perception. *Bilingualism: Language and Cognition*, 22, 637-654. <https://doi.org/10.1017/s1366728918000219>
- Lujanbio, O. (2016). *Hizkuntza-aldakortasuna euskaran. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa* [Doktore-tesia, EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/19581>
- Maia, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan* [Doktore-tesia, EHU]. Eusko Jaurlaritza. <https://www.euskadi.eus/tesiker/eskolako-hizkera-ereduaz-euskara-batuaren-eta-euskalkiaren-arteko-harremanen-testuinguruan/julian-maia-larretxe/euskal-herriko-unibertsitatea/letren-fakultatea/tesia/147>
- Meyerhoff, M. (2002). Communities of practice. In J.K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change* (526.-548. or.). Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9781118335598.ch20>
- Milroy, L. (1980). *Language and social networks*. Blackwell.
- Milroy, L. & Gordon, M. (2003). *Sociolinguistics. Method and interpretation*. Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9780470758359>
- Mitxelena, K. (1968). Ortografia. *Euskera*, 13, 203-219.
- Muxika-Loitzate, O. (2020). *The role of bilingualism in phonological neutralisation: Sibilant mergers in the case of Basque-Spanish contact* [Doktore-tesia, University of Ohio State]. OhioLINK. http://rave.ohiolink.edu/etdc/view?acc_num=osu1591977014269108
- Nance, C. (2018). Linguistic innovation among Glasgow Gaelic new speakers. In C. Smith-Christmas, N. Ó Murchadha, M. Hornsby & M. Moriarty (arg.), *New speakers of minority languages: Linguistic ideologies and practices* (213.-230. or.). Palgrave Macmillan. https://doi.org/10.1057/978-1-137-57558-6_11

- Olano, M. (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*. Nafarroako Gobernua; Aresoko eta Leitzako udalak.
- Olano, M. (2000). Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzako paradoxa. In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak* (121.-147. or.). Arabako Foru Aldundia.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Uranga, B. (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 85-105. <https://doi.org/10.1515/IJSL-2014-0033>
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Palazio, G. (1992ko urtarrilaren 14a). Euskara batuari buruzko hausnarketak. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Prichard, H. & Tamminga, M. (2012). The impact of higher education on Philadelphia vowels. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics*, 18(2), 87-95.
- R Core Team. (2025). *R: A language and environment for statistical computing* [software]. R Foundation for Statistical Computing. <http://www.r-project.org>
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2016). *Differential Object Marking in Basque: grammaticalization, attitudes and ideological representations* [Doktore-tesia, University of Illinois Urbana-Champaign]. IDEALS. <https://hdl.handle.net/2142/92712>
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2019). Changes in the pitch-accent system of Gernika Basque. *FLV*, 127, 123-151. <https://doi.org/10.35462/FLV127.4>
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2020). New speakers of Basque: a Basque-Spanish contact approach. *Linguistic Minorities in Europe Online*. <https://doi.org/10.1515/lme.9967442>
- Sagarzazu, T. (2005). *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Alberdania.
- Salaburu, P. (1994). Euskara batuaren egungo premiak. *Euskera*, 39, 675-695.
- Siadeco. (2017). *Euskararen erabilera errealean neurketak Irunen*. Irungo Udala.
- Sims-Williams, H. (2022). Token frequency as a determinant of morphological change. *Journal of Linguistics*, 58(3), 571-607. <https://doi.org/10.1017/S0022226721000438>
- Txikis del Bidasoa. (2025). *Escolarizar en Iparralde: colegios de Francia*. <https://txikis-delbidasoa.com/escolarizar-en-iparralde-colegios-de-francia/>
- Txingudi Ikastola. (2026). *Aurkezpena eta hezkuntza proiektua*. <https://txingudikas-tola.hezkuntza.net/eu/presentacion-e-historia>
- Urla, J. (1993). Cultural politics in an age of statistics: numbers, nations, and the making of Basque identity. *American Ethnologist*, 20(4), 818-843. <https://doi.org/10.1525/ae.1993.20.4.02a00080>
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2018). Basque standardization and the new speaker: Political praxis and the shifting dynamics of authority and value. In P. Lane, J. Costa & H. De Korne (arg.), *Standardizing minority languages: competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery* (25.-46. or.). Routledge.
- Urreta, I. (2026). Hizkera-mailaren araberako ahoskera aldakortasuna: euskara ikas-teko modua aztergai [Eskuizkribu argitaragabea]. EHU.

- Vandekerckhove, R. (2009). Dialect loss and dialect vitality in Flanders. *International Journal of the Sociology of Language*, 196-197, 73-98. <https://doi.org/10.1515/IJSL.2009.017>
- Wickham, H. (2016). *ggplot2: Elegant graphics for data analysis* [R paketea]. Springer-Verlag New York. <https://ggplot2.tidyverse.org>
- Zabala, J. (2013). Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 87-88, 127-148.
- Zuazo, K. (1988). *Euskararen batasuna*. Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (1989). Euskalkien geroaz. *Jazten*, 1, 29-35.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *FLV*, 30, 191-233. <https://doi.org/10.35462/flv78.1>
- Zuazo, K. (2003). *Euskalkiak: euskararen lekukoak*. Elkar.

